

“Euskadin marka berria ezartzeaz gain, orain arteko nire denborarik onena asko jaitsi dut”

June Arbeo Sarriugarte
Korrikalaria • 28



24 orduko pediatria zerbitzuaren alde sortu den plataformak elkarretaratzea egin du Durangon

Durango | Pediatriako larrialdi zerbitzuek ez dituztela Durangoko eta Durangaldeko beharrianak asetzen diote. • 5



Intsumisioak markatu zuen belaunaldia

25 bat urte dira intsumisioak eztanda egin zuenetik. Beste gazte askoren modura, kartzela ezagutu zuten Iñigo Mendibilek, Zigor Murgoitioek eta Haritz Leanizbarrutiak. Baina, harro daude. Helburua lortu zuten. • 2-3



LEHIOF ELORRIAGA

Inoizko Emakumeen Birarik gogorrean Urkiola igoko dute, lehenengoz

Durangaldea | Bihar hasi eta martitzenean amaituko da WWT izendapena estreinatuko duen Bira. Azken etapa Durangaldeko errepideetan izango da, eta Urkiola igoko dute, Mañaria aldetik. Faboritoen zerranda zabala da.

28. orrialdean

Ekainean, Oxford Test of English azterketak Ibaizabalen

- 79 € ikasle nahiz gurasoek
- 89 € ikasleak ez direnek
- **Lehenengo deialdia:** ekainak 15
- **Izena emateko azken eguna:** maiatzak 30

 **ibaizabal**
IKASTOLA

Informazio gehiago: www.ibaizabalikastola.eus



OXFORD
UNIVERSITY PRESS



LEHIOR ELORRIAGA

“Bizitzan ez diegu gol askorik sartu estatuari eta armadari, eta intsumisioarena garaipen txiki bat da”

Intsumiso izateagatik kartzela ezagutu zuten Mendibilek, Murgoiatik eta Leanizbarrutiak 90eko hamarkadan

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Intsumisoak ziren, eta oraindik ere hala sentitzen dira. Azken hamarkadetako borroka sozial handienetako baten hiru protagonista dira **Iñigo Mendibil Arando (Elorrio, 1971), Zigor Murgoitio Gaztelurrutia (Elorrio, 1971) eta Haritz Leanizbarrutia Urizarbarrena (Berriz, 1973)**. Armadari uko egiteko jarrera lehenago piztu zen arren, orain 25 bat urte egin zuen eztanda, 1993 eta 1995 artean. Batzuk objektore egin ziren, beste batzuek hirugarren gradua onartu zuten —lotara joaten ziren kartzelara—, eta espetxean sartuta borrokari indar itzela eman zioten hainbatek. Solasaldi honetako hiruren kasua da hori.

Soldadutza egiteko gutuna heldu zitzaizuen, eta ezezkua eman zenuten. Bizitza markatu zizuen bide bat hasi zen orduan.

Zigor Murgoitio: Nik 1994an eduki nuen epaiketa. Kakitzat elkarrean nembilen, eta gure estrategia kargu guztiak onartzea zen. Ez nuen hirugarren gradua onartu. Izan ere, estatuari eta armadari ez zitzaaien komeni bigarren graduko presorik egotea. Hamaika hilabetez egon nintzen barruan. Garesti ordaindu genuen, baina hemendik ikusita, satisfazio txiki bat da. Azken batean, bizitzan ez diegu gol askorik sartu estatuari eta armadari, eta intsumisioarena garaipen txiki bat da. 90eko hamarkadan gizarte mugimenduen eztanda bat egon zen:

antimilitarismoa, feminismoa, ekologismoa, gaztetxeak... Bestalde, azpimarratzekoa da nafarrena. Izan ere, bigarren graduan 100 preso egotera heldu ziren.

Iñigo Mendibil: Nik garbi neukan ez nuela soldadutzara joan gura, eta inondik inora ere ez nuen ikusten nire burua Espainiako armadan soldadu. Ferrolera joateko gutuna heldu zitzaidan, itsas armadara. Handik urte bira etorri zen epaiketa deialdia, eta ez joatea erabaki nuen. Ordurako, Zigor espetxean zegoen. Atxilotze aginduaren aurrean, nire atxiloketa behartzeko

“

Iñigo Mendibil:
“Inondik inora ere ez nuen ikusten nire burua Espainiako armadan soldadu”

“

Iñigo Mendibil:
“Borroka nabarmentzeko, bigarren graduan sartzeko prest nengoen”

ekintza bat prestatu genuen Durangon. Pintada bat egin nuen Ertzaintzaren komisariaren kanpoaldean. Kartzelaldiko lehen gaua oso gogorra izan zen, bere buruaz beste egiten saiatu zen *yonkee* bategaz ipini ninduten eta. Flipatu egin nuen. Kanpotik polita zen kartzela, baina barruan benetakoa zela konturatu nintzen.

Haritz Leanizbarrutia: Gutuna heldu zitzaidanean, ez joatea erabaki nuen; Iñigok esan duen moduan, oraindik eta gutxiago Espainiako armadara. Objektoreen aukera ere bazegoen, baina ez nengoen ados; guztiz intsumisoak izan behar genuela uste nuen. Epaiketa egunean, Berrizko alkatea, Xabier Amuriza eta beste hainbat ere etorri ziren. Horrelako babesia edukitzea itzela izan zen niretzat. 1995eko martxoa zen. Urtebete eta hile bi egon nintzen kartzelan. Heldu nintzenean, gutxi geunden bigarren graduan, Parabellumeko baxu-jotzailea eta beste hiru bat; lehenengoan ere bazeuden batzuk. Gero, hirugarren graduan sartzen eta sartzen hasi ziren. Irteterakoan, zeldetan sei litera zeuden, eta hiru pisu gorantz! Sasoi hartan zenbat antimilitarista zeuden, eta orain ze gutxi, inoiz baino okerrago gaudenean!
Kartzelan sartu eta irten ibili zinen, ezta, Iñigo?

I.M.: Intsumisioaren kontuagaz hiru bider sartu ninduten kartzelara. Lehena 1995eko urrian, epaiketara arte. Gero, espetxera sartzeko



Mendibilek bere atxilotzea behartu zuen unea Durangoko ertzain-etxean.



1996ko otsailean Mendibilek planto egin zion hirugarren graduari Elorriko udaletxean kateatuta.Eraz.



1994ko Abadiñoako Intsumiso Eguna. Eraz.



Haritz Leanizbarrutia Berrizko beste intsumiso batzuekin.

eguna ipini zidaten, hirugarren graduan. Ehunka geunden han gauetz lo egiten. Aste bi-edo egin nituen, planto egitea gura nuen eta. Borroka nabarmentzeko, bigarren gradura sartzeko prest nengoen. Hasieran ekintzetan aurkezten nintzen, baina ez ninduten barrura eramaten, eta utzi egin nuen. Azkenean, 1997an dagoeneko, atzetik segika nituen, eta aurkeztu egin nintzen. Barakaldoko beste intsumiso despistatu bat topatu nuen kartzelan, eta biok bakarrik geratzen ginen. 1998ra arte egon nintzen. 7 hilez intsumiso bakarria izan nintzen. Gero, epaiketa bat eduki nuen, hirugarren gradua apurtu nuelako eta Durangon pintada bat egin nuelako, eta jada 2000. urtean, beste 40 egun egin behar izan nituen Basaurin.

Mugimendu oso baten parte zintzen. Taldeak sortu ziren, ekintzak, Intsumiso Eguna... Babes handia zenuten.

H.L.: Berrizen talde bat sortu genuen. Batzar batera deitu nuen, eta taldearen izena eta izaera bertan erabakitzea pentsatu nuen. Jende mordo bat agertu zen, baita neska asko ere. Mutil batzuek objektore izan gura zuten, beste batzuek intsumiso... Beraz, Berriz Intsumiso eta Objektore Antimilitaristak deitzen zen taldea sortu genuen. 15 bat lagun elkartu ginen. Intsumiso edo objektore izatea hemen erraza zen, ze tsunami bat izan zen. Babes handia geneukan. Horrela, denek

“

Haritz Leanizbarrutia:
Epaiketa egunean,
Berrizko alkatea,
Amuriza eta beste
hainbat etorri ziren”

—

“

Zigor Murgoitio:
"Bergizarteratzearen
gai hori ez dut sekula
sinetsiko, kartzelan
ikusitakoaren ostean”

—

esaten zuten ez zirela soldaduskara joango.

I.M.: Elorrioren ere intsumiso taldea sortu eta hainbat pertsona elkartu ginen, ezker abertzalekoak, Kaitzatekoak... Lokaltxo bat hartu genuen gaztetxe gainean, eta paperak-eta betetzen genituen bertan. 1993tik 1995 ingurura, ia hilerio etortzen zen norbait paperak betetzen. Soldadutzara joatea oso arraroa bihurtu zen.

Z.M.: Euskal Herrian 9.000 gazte zeuden epaiketa zain une batean. Estatu osoan ere iheslari piloak egon zen. Gauza lehendik zetorren

errenka. Kanean babes sozial eta politiko handia geneukan. Alderdi ia guztiak zeuden intsumisioa despenalizatzearen alde. Ez da guztiz egia ere tantoa guretzat zenik; Europan armadak profesionalizatzen zebiltzan, eta derrigorrezko soldaduska zerbait zaharkitua bihurtzen zihoan. Guk azkenengo kolpea eman genion.

I.M.: Gaur egun alderdi guztiek zerbait sinpatikoa lez ikusiko dute, baina garai hartan askok beldurrez hartzen zuten. EAJK, adibidez, armada Irakera joateko aldeko botoa eman zuen; eurek ere edukiko zituzten kontraesanak.

Gizarte eta herri mugimenduak oso bizi zeuden sasoiaren zentzuzko ekintza sozialaren bidez gauzak aldatu zitezkeela sinesten zenuten, ezta?

I.M.: Hertzainak taldeak *Hau dena aldatu nahi nuke* abesten zuen sasoi hartan. "Neuk ere zerbait egin beharko dut aldatzeko, bada!", pentsatzen nuen. Gaztetxeak ere ez ziren etorri administrazioak eman zituelako, gazteek okupatu zituztelako baizik. Zegoen desobediencia jarrera nabarmentzekoa da.

Z.M.: Haritzek dioen lez, neska asko ere etortzen ziren. Feminismoagaz lotuta zegoen. Azken batean, zer da armada? Patriarkala, autoritario... Balio matxista guztiak ditu.

Oraindik intsumiso sentimendua barnean al duzue?

I.M.: Sentimendu handia dut, eta espetxetik pasatzeak asko markatu ninduen. Kontzientzia gehiago

hartu nuen intsumiso egin eta kartzelara joatean. Jende interesgarria ezagutu, egoeretara moldatu... Oso barneratuta daukat.

Z.M.: Nik ere, betirako. Oraindik ere, tarteka, Ezkerraldera joaten naiz, eta hango lagunekin martxa antimilitaristetan parte hartzen dut. Arma-fabriketara martxak egiten dituzte, besteak beste.

Kartzelara konbentzimenduz joan zintzen.

H.L.: Soldadutzara joatea, hori bai ez zitzaidala buruan sartzen! Gainera, harro geunden kartzelara joateaz.

Z.M.: Nik ere gurago nuke berriro kartzelara joan, soldadutza egin baino.

I.M.: Kanean babes handia geneukan, ze, hori barik, oso gogorra izango zen.

Esperientzia gogorra izango zen.

Z.M.: Nik sekulako lezioa hartu nuen. Ikasteko, gauzak ulertzeko, kartzelak duen papera... Han ikusitakoaren ostean, bergizarteratzearen gai hori ez dut sekula sinetsiko. Preso politikoak kenduta, preso denak 30 urtetik beherakoak ziren, eta denak babesik bakoak: drogazaleak, atzerritarak, desegituratutako familietakoak... Presoen aldetik errekonozimendu bat geneukan, borondatez sartzeagatik. Preso politikoak ezagutzeak ere markatu ninduen.

I.M.: Irudi indartsu batzuk daukat oroimenean. Behin, pilotalekuan lekua hartzeko korrika irten

nintzen egun batean, bat-batean labankada piloak eman zizkiten preso bati. "Nora etorri naiz ni!" pentsatu nuen. Mitxel Sarasketa preso politikoak ekarri zutenean ere gogorra izan zen; buruan bendak zituen... hilda zegoela ematen zuten.

Orain, Frantzian berriro ere soldaduska ipintzeko asmoa dute, eta beste herrialde batzuetan ere zurrumurrua dabil...

I.M.: Ikusten da mundua oso militarizatuta dagoela. Industria farmazeutikoaren ostean, dirurik gehien mugitzen duen industria izango da armada. Dena dela, uste dut oso gaitza izango litzatekeela hemen soldaduska berriro martxan jartzea. Berriro ere mugimendu antimilitarista sortuko litzateke. Herri honetan jende asko pasatu da kartzelatik arrazoi askorengatik, eta jendea horretarako prest badago, ez dut uste martxan jarriko litzatekeenik.

Z.M.: Hemen egon zen indarragaz, ez dut berriro martxan ikusten. Baina kezka ikusten dut Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeak egin duen salaketa: Bilboko portutik armak eta leherkariak ateratzen direla Saudi Arabiara. Horiek ez dira defendatzeko, baizik eta ospitaleak, eskolak eta etxeak apurtzeko. Gainera, gastu militarra aurten pilo bat igo behar da. Nahiz eta gerra hori urrun egon, han botatzen diren bonbak Euskal Herriko eskulanaz eginda daude.

Oinak Lurrean: Durangaldeko nekazaritza-lurren eta eskola jantokien etorkizunaz hausnartzeko plaza

Hilaren 21era arte eman ahal da izena maiatzaren 24an Plateruenean egingo diren jardunaldietan parte hartzeko

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Amankomunazgoak eta Urkiola Landa Garapenak antolatuta, Oinak Lurrean jardunaldien bigarren edizioa egingo dute maiatzaren 24an Plateruena kafe antzokian. Durangaldeko nekazaritza-lurren eta eskola jangelen etorkizunaz hausnartzeko plaza izango da. Hilaren 21era arte eman ahal da izena jardunaldietan parte hartzeko, oinaklurrean.wixsite.com/webgunean.

Eskualdean gai horien inguruan egon daitezkeen erronkei aukera zabaltzea da jardunaldien helburua, beste esperientzia eta informazio batzuk ezagututa. Esaterako, Baix Llobregateko (Herrialde Katalanak) nekazaritza-parkearen inguruan berba egingo du Josep Montasellek, eta Kanaria Uhar-

Nabarmentzekoa da Berton Bertokoako kideak legebiltzarrean egon zirela atzo

teetako Ecocomedores programari buruz Margarita Hernandezek.

Berton Bertokoako Gasteizen Bestalde, eskola jangelen gaiari lotuta, nabarmentzekoa da Berton Bertokoako kideak legebiltzarrean

egon zirela atzo, jangelen ereduaz eztabaidatzeko mahaian. Ikastetxe publikoetan ereduaz erabaki ahal izateko pausoak ematea, bertako eta sasoiko produktuak bultzatzea, eta falta den lekuetan sukaldeak ipintzea eskatu zuten.



Atxondoko landa eremua. Lehiur Elorriaga.

“Nekazaritzarik barik ez dago hiri intelijenterik”

Baix Llobregateko nekazaritza parkeko zuzendari izan zen Montasell 15 urtez.

Zelan sortu zen Baix Llobregateko nekazaritza-parkea?

1998an sortu zen. Nekazariaren sindikatuak lur gehiagoren beharrezan aldarrikatu zuen. Aldundia ere espazio naturalak bultzatzeko zuzendari zebilen. Partzuergo bat eratu zen, eta parkea osatzen zuten 14 herriek ere batzeko deia egin zitzaion. Lurrak higiezin ezantandatik babestea lortu zen.

Lurra babestea ere helburu da.

Bai, baina gestionatu barik kontserbatzea, denbora galtzea da. Argi geneukan lurra landu

behar zela, eraikuntza urbanistikotik salbatzeaz aparte.

Zelan antolatzen da?

1.500 ustiategi daude 3.000 hektareatan. Nekazari profesionalak eta elikagaiak jaten dituzten herritarrak dira onuradunak. Gestio orokorra da asmoa: bideak zaintzea, ur hornidura konpontzea, azokak antolatzea, nekazaritza ekologikoa sustatzea... Gainera, kontsumitzaileak zer jaten duen jakitea ere gura da. Proiektu agrourbanotan dago gakoak. Nekazaritza barik ez dago hiri intelijenterik.



JOSEP MONTASEL

Nekazaritzako injineru teknikoa

“10.700 ikaslek jaten dituzte produktu ekologikoak”

Kanarietako gobernuaren Ecocomedores programako ardura-duna da Hernandez.

Zelan hasi zineten Ecocomedores programa garatzen?

2010ean sektoreagaz egindako analisi parte-hartzaile baten ostean hasi zen. Proiektu pilotu lez hasi zen, irla bakoitzean eskola batean. Nekazariaren euren eskaintza Interneten eskegitzen dute astero, eta ikastetxeek eskaria egiten dute gero. Sukaldeko beharginak Hezkuntza Sailaren baitakoak dira.

Zer helburu du programak?

Alde batetik, umeen osasuna hobetzea, menuan bertako eta sasoiko produktuak txertatuta.



MARGARITA HERNANDEZ

Produktzio ekologikoa sustatzeko teknikaria

Oraindik menua ez da %100 ekologikoa. Bestetik, nekazariaren profesionalizazioa eta garapena indartzea.

Zenbat ikastetxetan zaudete?

Uneotan 51 ikastetxe daude. 10.700 ikaslek jaten dituzte produktu ekologikoak. Ikastetxeen interesaren eta nekazariaren eskaintzaren arabera, hazkunde orekatua izatea gura dugu. Gazte nekazari batzuk batu dira orain, adibidez. Horregatik, ikastetxe gehiagotara heltzeko moduan gaude. 102 nekazari ditugu uneotan.

Durangoko emakume bati eta haren amari eraso egin die gizon batek

DURANGO • M.O.

Emakume bati eta haren amari eraso egin zieten martitzenean Durangon. Udalak bidalitako oharraren arabera, gizon baten partetik irainak eta mehatxuak jaso zituen emakume batek, eta haren amak ere eraso fisikoa jasatu zuen. "Gure babeseraz adierazi gura diegu eraso pairatu duten emakumeei. Udalak bere baliabide guztiak jarriko ditu euren esku", adierazi dute oharrean. Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa aktibatuta zuten udal instituzioak.

Atzo iluntzerako elkarretaratzera deitu zuen Plataforma Feministak Andra Marian, eta bertan parte hartzeko gonbita egin zuten udalak Durangoko herritar guztiei.

Sahararen aldeko Rio de Oro elkarteak egun osoko jaialdia ospatuko du Tabiran

DURANGO • M.O.

Sahararen eta sahararren aldean ugari egiten du Durangaldeko Rio de Oro elkarteak. Aniztasun funtzionala duten umeen udalekua, umeak etxetan hartzeko programa, elikagaien karabana solidarioa... Horrez gainera, urtero jaialdi bat egiten dute, boluntario eta babesleak elkartu eta gaiak sentsibilizatzen jarraitzeko. Bada, biharko egun osoko jaialdia antolatu dute, Tabira auzoan.

Goizean tailerrak eta gaztelu puzgarriak eskainiko dituzte, eta eguerdian paella lehiaketan elkartuko dira. Arratsaldean bingoa egingo dute, eta 20:30ean kontzertuak egongo dira: The Lionels, Storm, Sangre de Mono eta Dj Singermorning.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko maiatzaren 18a
16. urtea - 721. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jasotzen du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

"Pediatriako larrialdi zerbitzuek ez dituzte Durangoko eta Durangaldeko beharrianak asetzen"

Hainbat guraso eta aitita-amamak 24 orduko pediatria zerbitzuaren aldeko plataforma sortu dute Durangon; atzo arratsaldean egin zuten jendaurreko aurkezpena, Landakoko anbulatorioaren ondoan, jende ugariaren babesean

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Azken hilabeteetan zeresana ematen ari den gaia da larrialdietako pediatriarena, eta jauzi berri bat egin du dinamikak. 24 orduko pediatriaren aldeko plataforma sortu dute Durangon, eta atzo arratsaldean egin zuten aurkezpena, Landakoko anbulatorio ondoan.

Herritar batzuek sinadura bilketa bat hasi zuten Interneten, eta 3.700 lagunen babesa jaso dute

"Gure ustez, pediatriako larrialdi zerbitzuek ez dituzte Durangoko eta Durangaldeko beharrianak asetzen, eta, horregatik, hainbat guraso eta aitita-amama batu gara plataforma honen inguruan", adierazi dute sustatzaileek. Gainera, udalagaz kritiko agertu dira. "Gaia Durangoko Udaleko osoko bilkura-eroan zen, eta ikusirik gobernu

taldea ez dagoela prest pediatria zerbitzua herritarren beharrianetara egokitzeko eta konponbideak bilatzeko, plataforma eratzea erabaki dugu", azaldu dute. Gaia orokorrean lantzearen aldeko mozio

alternatiboa onartu zuten EAJk, PSE-EEK eta PPK.

Aurretik, herritar batzuek sinadura bilketa bat hasi zuten Interneten, eta 3.700 lagunen babesa jaso dute. Elkarrekin Podemos

alderdiak eskaera zuzena egin zion Jon Darpon sailburuari legebiltzarrean, apirilaren 13an, baina Darponen ustez, "Durangaldean, seguruenik ez da beharko 24 orduko pediatria zerbitzu bat".



Landakoko anbulatorio ondoan egin zuten, atzo, plataformaren aurkezpena.

Aquaparkaren obrak hasi dituzte Ibarretxe kultur etxearen ondoko lursailean

IURRETA • MARKEL ONAINDIA

Uda honetarako, aquaparka izango dute Iurretan. Orain aste batzuk iragarri eta gero, hasi dira martxan obrak; hondeamakina bat ibili da asteon lurra mugitzen, instalazioak ezarri aurretik lurra egokitzeko, hori adostu baitzuen enpresak udalagaz. Igerilekuak, txirristak eta olatu artifizial bat egongo dira Ibarretxe kultur etxearen ondoko lursailean. Aquaparka udako hiletarako izango da soilik, ez behin betiko, beraz. Ekainaren 11rako zabalik egotea gura dute.

Proiektuaren sustatzaileek azaldu duten lez, ekainaren 11rako zabalik egotea gura dute

Egun osorako sarrera bakarra egongo da: iurretarek 12 euro ordainduko dute. Gainontzekoek, berriz, 16 euro. Hala ere, familia ugariarentzat hobariak aurreikusitakoak dituzte.



MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP



75 URTEZ JAKINTZA SUSTATUZ
ETORKIZUNA ERAIKITZEN

Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 23 18:00

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



Lanerako gertu!
2018-2019
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK



Eskolan 544.851 euro aterpea egin eta irisgarritasuna hobetzeko

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak 544.851 euro erabiliko ditu eskolako irisgarritasuna hobetu eta bertan aterpe bat jartzeko. "Eskolan irisgarritasuna bermatzea ezinbestekoa da eta, horregatik, lan hauek oso garrantzitsuak dira", adierazi du alkateak.

Bestalde, zorua aldatu eta futbol-zelaia dagoen tokian aterpe bat jarriko dute. Eguraldiak laguntzen ez duenetan, eskolako umeei aisialdi-gunea izan dezaten egingo dute aterpea; gainerako herritarrek ere erabili ahal izango dute. Horrez gain, aterpea herriko goiko aldean kultur ekimenak egiteko ere baliatuko dutela aitortu du alkateak. Lanak udako oporretan egingo dituzte.

Giza eskubideen urraketen inguruko ikerketa egiteko diru-laguntza, Berrizen

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

EH Bilduren mozioa aho batez onartuta, Berrizen diru-laguntza emango dute "egia, justizia eta memoria osoa" ezartzeko. Udalak diruz lagundutako ikerlana giza eskubideen urraketen ikerketa egiteko eta herriko sufrimenduaren mapa osatzeko izango da. EH Bildu eta EAJko kideek diotenez, ezinbestekoa da biktima guztiek merezi duten errekonozimendua izatea eta haiei erreparazio egokia ematea.

20.000 euro bideratuko dituzte Apatako plazako lanak amaitzeko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Apatako espazio publikoak zelan berrantolatu pentsatzeko, Kale Irekiak prozesuak ondorio argi bat utzi zuen Atxondon; plaza eta bere ingurua dira Apatako erdigunea, eta hango espazioa errealitate horretara moldatu beharko litzateke.

Iaz plaza berrantolatu zuten. Hala ere, horma batzuk bota barik eta baranda batzuk jarri barik gelditu ziren, besteak beste. Hori horrela, 20.000 euro bideratu dituzte lan horiek egiteko.

Prozesu parte-hartzaile bidez, Aldapebeitia jauregia biziberritu gura du Elorrioko Udalak

Maiatzaren 30etik ekainaren 4ra bitartean, bisita gidatuak egingo dituzte Elorrioko Aldapebeitia jauregian



Xabier Luque Aztikerreko kidea, Idoia Buruaga alkatea eta Iruntza de Castro parte-hartze teknikaria.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Duela hamar urtetik hutsik dagoen Aldapebeitia jauregia prozesu parte-hartzaile bidez biziberritu gura du Elorrioko Udalak. Iraganeko udaletxe, osasun zentro eta Elorrioko zenbait eragileren egoitza izan zen jauregiari erabilera emateko asmoz jarri dute martxan prozesua. "Aldapebeitia jauregia Elorrioren parte garrantzitsua izan da urte luzez. Orain, ordua da eraikina ahanzturatik atera eta erabilera berri batera bideratzeko", aitortu du Idoia Buruaga alkateak.

1.000 metro koadro dituen eraikina hainbat erabileratarako eskaini daiteke, eta prozesuaren helburu nagusia elorriarrei bertan zer egingo luketen galdetzea dela jakitera eman du udalak. "Aldaketa elorriar guztiekin batera egin gura dugu, amesten dugun Elorrio hori guztion artean eraiki-

1.000 metro koadro dituen eraikinari zer erabilera eman galdetuko diete herritarrei

tzen jarraitzeko", azaldu du Idoia Buruaga alkateak.

Jardunaldi irekiak

Maiatzaren 30etik ekainaren 3ra, jardunaldi irekiak egingo dituzte Aldapebeitian. Horrela, herritarrek eraikina barrutik ikusi, jauregiaren ezaugarri estrukturalak ezagutu eta, ostean, euren iritzia emateko aukera izango dute.

Asteazkenean zehar elkarrekin bisitak 18:00etan hasiko dira, eta herritarrenak, 19:00etan. Asteburuan, berriz, Elorrioko Arrapaladan An-

tzerki Taldeak lagunduta, bisita gidatuak egingo dituzte, 12:30ean eta 19:00etan; bisita gidatuak antzezlan batez lagunduko dituzte.

Bestalde, herriko sei puntutan jarriko diren postontzietan zein www.elorrio.eus webgunean, herritarrek euren proposamenak utzi ahalko dituzte.

Herriko postontzietan edo webgunean utzi ahalko dituzte herritarrek euren proposamenak

32 garaitar joango dira Lantziegora, hango lagunekin senidetza ospatzera

2013az geroztik senide dira ofizialki Garai eta Lantziego; bihar elkartuko dira berriro



Iaz, azaroan etorri ziren Lantziegokoak bisitan Garaira.

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Dantza taldeen bidez hartu-eman estua sortu zuten Garai eta Lantziegoko herriek, eta 2013az geroztik senide dira ofizialki, udal biek hala onartu eta gero. Horregatik, urtero elkarregaz ospatzen dute senidetza hori. Urte batean herri batean, eta hurrengoan bestean. Aurten, lantziegarrek egingo dute anfitrioi lana; bihar hartuko dituzte garaitarrak euren herrian. Garaitik 32 lagun joango dira autobusean, Lantziegon egun-pasa egitera.

09:30ean irtengo dira Garaitik, eta ailegatzean harrera egingo diete Lantziegon. Gero, hamaiketakoaren eta poteoaren txanda izango da. Ekitaldirik garrantzitsuenak bazkaria izango da, herriko pilotalekuan. Otorduaren ostean, erromerian dantzatzeko dira.

MAÑARIKO ASTE KULTURALA

18 - 26 maiatza

 **AUTOBUSA
DEBALDE
DURANGO ↔ MAÑARIA**

18.00-00.00
26/05

MAÑARIKO GARAGARDO AZOKA

EUSKAL HERRIKO GARAGARDO ARTISAUAK

BOGA GARAGARDOA

GARAGART

TXG
TXORIERRI
GARAGARDOAK

BAOBEER

LA TXIKA
DE LA
CERVEZA

GLAYN GELATIN

GARAI
BREWING Co

THATE

**CRAFT
BEER**

**FOOD
TRUCKS**

KONTZERTUAK

MGA



ANTOLATZAILEAK:

GARAI
BREWING Co



Mañariko Udala

MAÑARIA

2018ko maiatzaren 20an
Goizeko 10:00etatik aurrera



**XXIII. Artisau, Elikadura
eta Landare Azoka**



**III. Euskadiko
Azpi Gorri Txapelketa**



k

bbk gizarte ekintza

III. EUSKADIKO AZPI GORRI TXAPELKETA



10:00 h.
Animaliak ikusgai

Maiatzak
2018
20

MAÑARIA


Laguntzaileak:



Antolatzaileak:



Lemoako igerilekua bertakoen prezioan erabili dezakete zornotzarrek



Lemoako igerileku irekiak.

ZORNOTZA • J.D.

Kirol zerbitzuen eskaintza areagotzeko eta udalerrien zerbitzuei etekin oparagoa ateratzeko helburuz, 2017an sinatutako hitzarmena berri egin dute Zornotzako eta Lemoako udalek. Hitzarmen horri esker, Lemoako igerileku irekietan abonua eginez gero, Lemoan errolatuta dauden erabiltzaileei aplikatzen zaien kuota berbera aplikatuko zaie Zornotzan errolatuta dauden herritarrei igerilekua erabiltzeko. Berdina gertatzen da Zornotzako areto-futbol taldeekin eta padel jokalariekin. Lemoako kiroldegiko instalazioak erabiltzeko erreserba eginez gero, lemoarrei ezarritako baldintza berdinetan erabili ahalko dituzte. Hitzarmena alde bitarokoa da. Lemoarrekin ere zornotzarren prezio berdinean egin ahalko dituzte Larrea kiroldegiko abonua.

Gerra zibilean hildakoak omenduko dituzte, belaunaldi berrienganako transmisioan eragiteko

Gerran hildakoak oroitzeko Zornotzako Zelaieta parkean jarrita dagoen plakaren inguruan egingo dute ekitaldia, bihar; gaztetxo baten esku egongo da aurten lore eskaintza. Aurten zortzigarren aldia beteko du oroimen ekitaldiak

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornoza elkarteak antolatuta, gerra zibilean hildakoak oroitzeko ekitaldia egingo dute, bihar, Zelaieta parkean dagoen plakaren ondoan. Sarraskia gogoratzeaz gainera, belaunaldi berrienganako transmisioan eragitea dute helburu elkarteko kideek.

Ekitaldia 12:00etan hasiko da. Zornozako kideek bertaratuak herritarrei eta udal ordezkariari harrera egingo diete eta ekitaldiaren nondik norakoak azalduko dituzte.

Udazken Zornotzako txistulari taldearen saio labur bategaz amaituko dute aurtengo aldia

Ondoren, gerra zibilean hildakoen omenez dagoen plakan lore sorta bat jarriko dute.

Aurten gaztetxo batek egingo du lore eskaintza, transmisioan eragireko duten helburua adierazteko. "Gerra bizi izan zutenek lehenengo pertsona pairatu zuten gertatutakoa. Haien zuzenean kontatu zioten bizi izandakoa hurrengo belaunaldiari. Transmisio hori hirugarren belaunaldira heldu dadin,



2012az geroztik egiten dute ekitaldia Zelaieta parkean, Zornoza elkarteak antolatuta.

"Transmisioa hirugarren belaunaldira heldu dadin, gure aletxoak jartzea da ekimenaren helburua"

gure aletxoak jartzea da ekimenaren helburua", adierazi du Kepa

Arana Zornoza elkarte artistiko kulturalako kideak.

Lore eskaintzaren ostean, Andoni Agirrebeitia Zornotzako alkateak berba batzuk esango ditu. Udazken Zornotzako txistulari taldearen saio labur bategaz emango diote amaiera aurtengo aldiari.

Aurten zortzigarren aldia beteko du oroimen ekitaldiak. Gregorio

Arrien teologo, abade eta idazleak egindako proposamena izan zuten abiapuntu. Ondoren, 2012an Xabier Legina zornotzarrek koordinatutako *Tres generaciones para el recuerdo* dokumentalaren aurkezpenetik hartu zuten belaunaldi berriengan hiltzeko ideia. Harrezkero, urtero antolatu dute ekimena Zornotzako Zelaieta parkean.

Txahal okela ekologikoaren postua nobedadea izango da domekako azokan

Landare eta elikadura azokak askotariko 20 postu batuko ditu Mañariko plazan; artisautza tailerrak ere izango dira



Plazan 20 antxume parrillan erre eta pintxotan salduko dituzte.

MAÑARIA • J.D.

Mañariko elikadura eta landare azokak 23. aldia egingo du domekan. 10:00etan hasita, 20 postu jarriko dituzte guztira plazan, eta horietatik bi lehenengoz etorriko dira: hutsean enbasatutako txahal okela ekologikoarena eta gildena. Zornotzako eta Mungia-ko ekoizleak dira, hurrenez hurren. Horiekin batera, ezti, txakolin, sagardo, gozogintza, ortuari eta beste hainbat produkturen gaineko postuak ere egongo dira.

Pilotalekuan artisautzari buruzko tailerrak egingo dituzte goizean zehar. 12:00etan Andra Mari dantza taldearen saioa egongo da, hau ere pilotalekuan. Plazan 20 antxume parrillan erre eta pintxotan salduko dituzte, baserriko ogiagaz batera, euro bitan.

Aurten, hirugarrenegoz, ahuntz azpigorrien txapelketa ere egingo dute. Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako 13 artzainen ahuntzak ikusi ahal izango dira, plazaren ondoko aparkalekuan.



Erakusketako argazki bat.

Erakusketa bategaz hasiko da Jasokunde urteurrena ospatzen

MALLABIA • J.D.

Jasokunde abesbatzak 25 urte egin ditu eta, ospatzeko, erakusketa bat antolatuko dute Kontzejuzarrean. Astelehenetik barikura egongo da ikusgai, 18:00etatik 20:00etara. 160 argazki, jantziak eta kartelak batu dituzte, besteak beste. Gainera, hilaren 26an, 20:00etan, kontzertua eskainiko dute frontoian, Mendibil eta Lagun Artean abesbatzekin. Kantu batzuetan dantzarien eta trikitixa doinuen laguntza izango dute.

Orientazio topaketak egingo dituzte Otxandioko eskolan 1.000 gaztetxogaz

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Aurten ere orientazio topaketak egingo dituzte Otxandion, Mainondon dagoen eskolak antolatuta. Maiatzaren 28tik ekainaren 1era, 23 ikastetxetako 1.000 bat gaztetxok parte hartuko dute topaketan. Tartean, eskualdeko hainbat eskola daude: Abadiñoko bi —Zelaieta-koa eta Traña-Matienakoa—, eta Zaldibarko bat, Otxandiokoaz gainera. Urtero moduan, parte-hartzaileek mapa bat hartu eta Otxandio inguruan ezkutatu-tako balizak aurkitzen ibiliko dira, iparrorratzak lagunduta.

Gaur bisita berezi bat jaso dute. Igorreko eta Galiziako institutu banatan bertsozaintza ikasten dabiltzan gaztetxoek bisitatu dute Otxandio, eta orientazio probak egin dituzte.



Innovation
that excites

NISSAN INTELLIGENT MOBILITY



**NISSAN QASHQAI
BERRIA
BETI LEHENENGOA
17.900 €*** TIK AURRERA

GAURSA

Arriandi Auzoa, 12 48215 - Iurreta - Bizkaia - Tel. 946 205 000

Kontsumo mistoa: 3,8 - 5,8 l/100 km. CO₂ isurpenak: 99 - 134 g/km. Kontsumo homologatua europar legeriaren arabera.

*PSP gomendatua penintsulan eta Balearretan, barne dauzka FAP, garraioa, Nissan Assistance, sustapenaren deskontua, BEZ eta ZGZB, Espainiar merkaturako, nahiz eta azken hori agian ez den aplikagarria zure Autonomia Erkidegoan. Aplikaturiko zergek erosketaren unera arte aldaketak jasaten badituzte, prezioa indarrean dagoen zergaldi berriari egokituko zaio. Eskaintza balioduna eskuzko Nissan Qashqai Visia 1.2 DIG-T 115CV (85 kW) berri bat eskuratzen duten partikular eta autonomoentzat, baldin eta eroslearen izenean dagoen erabilitako ibilgailu bat ematen badute eta Espainian Sukurtsala duen Magic Plan 3D de RCI Banque SAren bidez finantzatzen badute. 24 hilabeteko gutxieneko iraupena. Salbuetsita daude Flotak eta enpresak. Eskaintza ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta 2018/05/31 arte da balioduna. Informazio gehiago jasotzeko kontsultatu <https://www.nissan.es/>



Taldea Batuak-ek egin zuen dantza.

San Trokazen azken txanpa ospatuko dute asteburu honetan

ABADIÑO • A.M.

Joan den astean hasi ziren San Trokazak, eta amaierara iristen ari dira. Horrela, ekitaldi sorta antolatuta dute astebururako Jai Batzordeak eta Gaztetxeak. Kontzertuak protagonista izango dira asteburu osoan zehar. Gaur Gozategi, The Wilsons, Sumision City Blues, Joseba B. Lenoir eta Willis Drummond taldeek eskainiko dute kontzertua. Urtero bezala, domekan, 20:00etan, Gerbas agurtuko dute, datorren urtera arte.

Maiatzaren 29ra arte aurkeztu ahalko dira kartel lehiaketarako proposamenak

ZALDIBAR • A.M.

Maiatzaren 29an amaituko da kartel lehiaketarako proposamenak aurkezteko epea. Sormen lanik onenak 250 euroko saria jasoko du; bigarren onenak, 150 eurokoa. Azken urteetan bezala, nagusien eta umeen lehia bi bereizi dituzte, hurrengan ere sorkuntza sustatzeko. Lan guztiek 2018ko Zaldibarko Jaiak leloa eduki beharko dute.

Aurten nobedade nagusi bat du kartel lehiaketak. Izan ere, sormen lanak euskarri digitalean (JPG) ere aurkeztu ahalko dira; orain artean, euskarri fisikoan (DIN A3 formatuan) baino ezin ziren aurkeztu proposamenak. Kartelak euskarri digitalean aurkezteko, kultura@zaldibar.eus helbidera bidali beharko dira.



Izurtzako aterpetxean bizi diren gazte etorkinek eguazten arratsaldean margotu zuten plazako horma irudia.

Gazte etorkinek kultur aniztasunean eta integrazioan sakonduko dute bihar Munduko Loreak ekimenean

Aterpetxean dauden gazteek plazako horma zati batean margotutako murala inauguratuko dute, besteak beste. Horma irudiak aniztasunaren adierazle izan gura du

IZURTZA • JOSEBADERTEANO

Izurtzako aterpetxean afrikar jatorriko 24 gazte bizi dira eta Loraldia kultur elkarteak egitasmo integratzaile bat burutu du eurekin. Hiletan euskarara eta euskal kulturara hurreratzen lagundu diete hainbat ekimenen bitartez. Ibilbide horren amaierara heldu dira eta helmuga izurtzarrekin batera zeharkatu gura dute. Horretarako, etorkinak izurtzarrekin hartu-emanetan jarri gura dituen ekimena prestatu dute biharko.

Munduko Loreak izena jarri diote eta 11:00etan hasiko da, pilotalekuan. Ekintzarik esanguratsuena 11:45ean bistaratu dute mural berria izango da, ekimenaren esentzia sinbolizatzen duelako. "Horma irudia kultura aniztasunaren adierazlea izango da eta Izurtzako herriari eskainiko zaio, bertan bizi diren gazte horien integrazioan

aurrerapausoa irudikatuz", adierazi du Loraldia Eskolako koordinatzailea den Erika Urangak. Irudia Izurtzan bizi diren 13 eta 16 urte arteko gazte etorkinek pentsatu dute. Eskema horri jarraituz, Mar-

zizkioten: izkina batean berberean bandera bat gehitu zioten, besteak beste.

Bihar, murala bistaratu aurretik, orubetean askotariko ekintzak izango dira. Esaterako, Afrikako



Mustafa Ben Ari

"Lehenago ez nuen ezer ezagutzen euskal kulturari buruz eta orain bai"

tzel Do Nascimento Goiria artista zornotzarrak marraztu du plazaren ondoko horma batean. Hamar metroko zabalera eta hiru metroko garaiera du. Irudian gazte bat ageri da, biluzik eta ahoz behera etzanda, ilaran doazen inurriei begira. "Kuriositatea eta jakin-mina islatzen ditu", azaldu du artista zornotzarrak. Eguaztenean marraztu zuen eta etorkin gazteek ekarpenak egin

eta Euskal Herriko doinuak eta instrumentuak uztartuz sortu duten musika erakutsiko dute.

Mustafa eta Baba, adibide bi

Gazte bakoitzak bere istorioa du atzetik. Esaterako, Mustafa Ben Ari (Maroko, 2002) berbera da eta sei hilabete daramatza Euskal Herrian. Marokoko Tanger herritik Tarifara (Cadiz) dauden 14 kilo-



Baba Dioscs

"Ekitaldia ondo irtetea espero dut. Ilusioz lagundu dugu horma irudia egiten"

Italiara, patera batean. Estuasunik igaro zuten galdetzean, gau hura ez duela "sekula ahaztuko" onartu du. Urtebete darama Euskal Herrian eta sukaldari izan gura luke. Hemen lagunak egin dituela eta "jende atsegina" aurkitu duela dio. "Asteburuko ekitaldia ondo irtetea espero dut. Guk ilusioz lagundu dugu horma irudia egiten", adierazi du senegaldar gazteak.

arizmendi
ikastola PRO

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

Zure Lanerako Bidea

Ate irekiak maiatzak 22 FERIXALEKUAN 18:00

→ Kirola

→ Erizaintzako zaintza osagarriak

→ Mikroinformatika

→ Osasun larrialdiak

943 77 20 25 (ext.4322) • lanbideheziketa@arizmendi.eus

www.arizmendipro.eus



JOSE MARI URIARTE

Hareek denporak!

NATXO MARTINEZ, URIOLETAKO NAUFRAGOA

Oraindik ere eguraldi onaren zain gauden 2018ko maiatz honetan, 35 urte atzera egin eta irudi ikusgarri hau dakargu.

Askoren begien hondoetan gordeta egongo dira 1983ko abuztuko uriolak. Euri-jasa itzelak jausi ziren Euskal Herrian, eta kalte handiak sortu zituen. 39 pertsona hil ziren guztira, eta 8 desagertu. Durangaldean Ibaizabal ibaiak gainezka egin zuen. Irudian, esaterako, Iurretako

Mallabiena inguruak agertzen dira. Jose Mari Uriartek ateratako argazkia da, eta gainezka egindako uretan naufrago baten modura ikusten dena Natxo Martinez da, Durangon zinegotzi eta jai batzordeko kide historikoa izan zena. Antza denez, sasoi hartan hantxe zuen lantokia, eta plastikozko txalupatxo batean hara gerturatzea erabaki zuen. Hori bai imajinazioa eta ausardia! **M.O.**

Sei hankako mahaia

Goiztidi
Diaz Basterra
EAJ



Durangoren sasoi!

Gure uria hasi da jadanik motoreak berotzen aurtengo Euskal Jaietarako. Hasiera batean Euskal Astea modura hasi bazen ere, gaur egun egokiagoa den izenez ezagutzen da. Baina egokitasuna ez da izen aldaketaren ardatz nagusia, urtero euskal asteko ekitaldiak gehiagotzen joan izatea izan da gure Euskal Asteak izan duen metamorfosiararen erantzule nagusia.

Pozgarria da ikustea euskal kulturaren eta folkloreak in-guruko zaletasuna goruntz doala gure urian. Gero eta gehiago dira parte hartzen duten elkarte eta eskolak, eta, ondorioz, gero eta anitzagoak eta aberatsagoak dira Euskal Jaiak. Bistan dago parte-hartzea bizirik dagoela. Nahiz eta askoren ahotsetan kontrakoa iruditu, Durango beti izan da uri parte-hartzailea.

Badakigu denon gustua egitea zaila dela, baina bide egokiari ekinez gai izan gaitzeko oztupoak alde batera utzi eta denon onurako Durango bat eraikitzeko. Durango sasoiaren dago, aurrera eginez, gero eta euskaldunago eta sozialago. Eta halan da aspalditik egindako lanaren ondorioz, batzuetan gustukoa izan ez arren, uriaren interes orokorraren alde egindakoa.

Behin baino gehiagotan entzun ditugu erraztasunez egindako aldarrikapen demagogikoak, erraztasunez egindako nahaste-borrasteak. Baina eguneroko lanean gobernatu egin behar da eta hori seriotasunez egin behar da, eta ez momentuko burutapenei jarraituz. Gehiago hitz egiteagatik, batzuek ez dute gehiago egiten; izan ere, beraiek bidea hasten dutenerako, batzuek bagaude bueltan. Durangok sasoiaren jarrai dezan lan egingo dugu, nahiz eta batzuek burua saldu eta txapela erosi egiten duten.

Durangaldea asteen

Buruz buruko pilota finalerako sarrera bi irabazi daitezke Mañariko errifagaz

Mañaria | Buruz buruko pilota finala ikusteko sarrera bi zozkatuko dituzte Mañariko errifagaz. Euro bat balio du errifak eta oraindik saltzen ari dira, pilota klubeko arduradunek azaldu dutenez. Maiatzaren 20an ONCE-k egingo duen zozketako azken lau zembakiek osatuko dute errifako irabazlea —hasieran saldu zizuten errifa batzuetan zozketa eguna txarto agertzen zen, baina gerora ateratakoetan zuzen ageri da—. Txartel saritua duenak 300 euro eta buruz buruko txapelketarako sarrera bi lortuko ditu.

Film labor abenturazale eta hunkigarriak saritu dituzte Kirolene Film Fest Jaialdian

Durango | Kanadan elur-jausi bat zuzenean bizi zuten lagun —tartean, Durangaldeko Igor Bernas, Igor Arbulu eta Ane Hernani daude— film laborra saritu zuten Kirolenek antolatutako film laborren lehiaketako lehen edizioan. Natura eta kirola sustatzea helburu duen ekitaldiak jende asko bildu zuen San Agustin kulturean. Hainbat aipamen egin ziren, eta 11 sari eskaini ere bai.



Iritzia

MAIATZAK 17. TRANSFOBIA, LESBOFOBIA ETA GAYFOBIAREN AURKAKO EGUNA

Gure jendartean LGTBifobiak bizirik darrai eta urtero hamaika indarkeria kasu ditugu. Horieta asko ezkutuan geratzen dira, oraindik ere bazterkeriak eta inbisibilizazioak legitimazio handia dutelako eta LGTB+ pertsona askok estigma pairatzen dutelako.

LGTB+ pertsonen kontrako indarkeria modu ezberdinetan adierazten da eta gure konpromisoa izan behar da guztiak gaitzestea, deslegitimaztea eta desagerraraztea, guztiak larriak eta onartezinak direlako. Oraindik asko egin behar dugu LGTB+ pertsonen eskubideak bermatuak izateko.

Denok nahi dugun jendarte justu eta parekidea eraikitzeko, lanean jarraitu behar dugu, arlo guztietan eta bakoitzari dagokion eremuetatik. Instituzioek arduraren handia dugu, eta modu irmo, egoki, integral eta koordinatuan egin behar diogu aurre, betiere ikuspegi feminista ez binarista batetik, eta prebentzioa, sentsibilizazioa, arreta eta erreparazioa jasoz. Zentzu honetan, Nafarroako Gobernua azken urteetan egin duen ibilbide ereduagarria aipatu nahi dut; aitzindaria izan zen 2009an pertsona transexualen eskubideak aitortzen eta babesten dituen legea aprobaturik.

Halaber, aitortu behar ditugu LGTB+ zein mugimendu feministaren ekarpenak; euren esker ari da bisibilizatzen eta deslegitimaztea gaia.

Azkenik, egun honetan gogoratu nahi dut joan den otsailean Ondarroan gertatutako EKAI nerabe transexualaren heriotza, guztiz onartezina jendarte aurrerakoi eta demokratiko batean. Berretsi nahi dugu gure konpromiso irmoa horrelakorik berriro gerta ez dadin.

Aratxu Uriarte Muruaga (Elorrioko Berdintasun Zinegotzia).

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzirik kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).


hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#gomendioak



GENERO
NAHASMENDUA
Judith Butler
(2018)



ERREBELDEAK
Susan E. Hinton
(2018)



ANGEL
Mercedes Sosa
(2015)



Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

katerin
ardoak
iñaki
uribe



Eguneko menuak - Asteburuetak menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

etxeajantzi

DEKORAZIO GEHIGARRIA 2018



grupo
muebladora
mondragonesa

ZERKAOSTETA 3
TEL.: 943 71 10 11



ARRASATE



ZIGARROLA 1
TEL.: 943 79 15 03



ARGIZTAPENA

Ukitu industrialia,
argiztapena hornitzeko



Flexoek ere aire
industrialia izan deza-
kete puntu zehatzak
argiztatzeko



Fabrika eta tailerretan
inspiratutako lanparak
moda-modan daude



Fabriken diseinua oinarri
duten lanparek edozein giro
apaintzeko balio dute. Sukaidean
zein jangelan, argiztapenerako
egokiak izaten dira. Jangelako
mahaiaren gainean ipintzeko oso
baliagarriak dira, batez ere



bed's

Zure atsedenean
pentsatzeko sasoi da
Bisita gaitzazu!

bed's

décorso
tu

K | OHE - OINARRIAK | BURKOAK | OHEKO ARROPA

Zure premiari erantzuteko prest izango gara:

bed's koltxoi - denda
Alluitz 1, Durango
T. 944 005 980

KOLTXOIAK | OHE-OINARRIAK | BURKOAK | OHEKO ARROPA

etarte
www.etarte.com

Euskal Herria kalea, z/g.
ZALDIBAR
T/F: 946 030 416
Mug.: 635 717 360
info@etarte.com

Ideiak sortu
Diseinatu
Eraiki
Apaindu
Bermatu

Barne-diseinatzailea:
Garazi Burgoa





Espazioak zabaltzea

SUKALDEAK

Espazio zabalen zaleak direnentzat aukera aproposa izaten da sukaldea eta jangela batzea. Estilo klasikoaren zaleek egurra eta adreilua uzartu dezakete. Modernoagoek, berriz, diseinu minimalisten aldeko hautua egin dezakete



Kolore uztarketek argitasuna ematen diote sukaldeari. Beltzak eta zuriak zein egur koloreak eta zuriak



AHOLKULARITZA
PROFESIONALA

TABIRA
COLOR

BERRIKUNTZAK
DITUGU

**AZKEN
BELAUNALDIKO
PINTURETAN**
**PINTURA
EKOLOGIKOETAN**
**ORBANEN
KONTRAKO
PINTURETAN**

**ZATOZ GU BISITAZERA
ETA INFORMATZERA**

Montorretas Ind. 9-F Pab. DURANGO
Tel.: 946 217 911



Estilo nordikoa nagusi da diseinu arloan. Egur kolorea, kolore zuria eta sinpletasuna dira estilo honen ikur garrantzitsuenak. Nekatzen ez duten diseinuak dira



Osagarriek ukitu berezia ematen diote mahaiari



Karmelo Agirre
Barne Diseinua

Top+ Interiors

610 50 10 86

Solozabal Dekorazioa
studio



@solozabaldekorazioa



solozabaldekorazioa@yahoo.es



94 682 03 92



Urarka kalea, 15 - ELORRIO - Bizkaia

MUEBLES DE COCINA Y HOGAR
ARRIANDI
SUKALDE ETA ETXeko ALTZARIAK

Distribuidor de SANTOS



Polígono Urbitarte, 6 - Local 3 - 48220 Abadiño - Tel.: 94 620 26 56 - abadiano@arriandi.com



José David Espinosa Gonzalez

**LEUNKETAK eta
BERNIZADURAK**

OHOLTA BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
PARKET EZARPENAK, OHOL ETA BALDOSA GAINEAN

Tel. 94 684 25 17
Mugikorra (Jose David) 687 537 732
jose.pinky@yahoo.com

Bº Artikas, 26 - 48288 Ispaster
Avd. San Andres 30, 1ºD- 48250 Zaldibar

Espazio multifuntzionalak

EGONGELA



Erabilera anitzeko espazioa izaten da egongela. Dekorazioari dagokionez, landareek bizitasuna eta naturaltasuna ematen diote etxeko gela honi



JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberitzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A, Berriz - Tel./Fax: 946 824 143 - Mug: 658 758 421 - info@jaiobarnizatuak.com - www-jaiobarnizatuak.com

jazz solutions

- interiorismoa
- lan guneak
- kudeaketa bisuala

interiorismoa . proiektuak 3Dn . irekitzeko lizentziak . altzari eta dekorazio pertsonalizatua . obraren zuzendaritza . binilo pertsonalizatuak . gremioen koordinazioa . obrak etxebizitza eta lokaletan

www.jazzsolutions.es

telf.: 94 621 59 64

Durangoko plateruen plaza 12 etxabea
48200 DURANGO - BIZKAIA

ATERPE ARROTZAK

EGUR ERAIKUNTZAK · TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar
635 74 84 65

www.carpinteriaaterpe.com

Ander Maiztegi
655 73 75 51



Egongeletan kolore neutroak jarri arren, kolore ukitua emateko elementuak aukeratu daitezke



Eserleku berezi batek zein kuxin koloretsuek bizitasuna emateko balio dute. Gainera, nekatzuz gero, aldatzeko errazak diren elementuak dira



CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Chimeneas
Cerámicas
MACOBER
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

ALKI
Alki Decoración-en bizi izateko espazioak sortuz
Zure ametsak errealitate bihurtzen ditugu
Barne dekorazioa
Mikeldi, 6 48200 Durango • 946 813 895
alki@interioresalki.com



studio²
BARNE-DISEINUA
Montorra auzoa, z/g AMOREBIETA
Tel.: 946 301 396
Mug.: 671 695 287 / 671 695 289
www.studio2decoracion.com
amorebieta@studio2decoracion.com





**ETXE PERTSOLANIZATUAK, NEURRIRA EGINDAKO ALTZARIEKIN
ANIMATU DENDA BERRIZTATUA BISITATZEN**






izei®

Zuekin 1980tik



FINANTZIAZIOA ZUEN NEURRIRA
www.izeidecoracion.com




Etxebizitza batean, dekorazioaz gain, oso garrantzitsua da EROSOTASUNA hobetuko duten neurriak hartzea, akustika aldetik zein temperatura aldetik



CONFORT



Merkatuan, baliagarriak zaizkigun zenbait irtenbide daude isolamenduarekin eta arotzeriarekin lotutakoak



arquitectura • gestión • urbanismo
Elkartegia - Landako 4.
Durango
T. 94 681 23 11
info@d3arquitectos.com
www.d3arquitectos.com

Durango kokatutako arkitektura bulegoa, irisgarritasun eta energia-eraginkortasun irizpideak erabiliz eraikinen erosotasuna hobetzeko berriztatze eta birgaikuntzan adituak.

Emaitza hobereana lortzeko helburuarekin obra garapen osoan aholkatuz auzo komunitate eta partikularrekin lan zuzena.

Esperientzia zabala:

- Eraikin osoen birgaitzea.
- Fatxada zein teilatu energia birgaitzeak.
- Igogailu instalakuntzak zein irisgarritasun hobekuntzak.
- Txosten teknikoak (ITEak, EZEak, peritazioak...).
- Diru-laguntzak zein lizentzia tramitazioak.

Konpromisorik gabe kontsultatu.






Atsedena hartzeko
espazio atseginak

LOGELA



Kolore argiek eta
apalek lasaitasuna ematen
diote logelari. Izan ere, atsedena
hartzeko espazioetan
erosotasuna gailendu
behar da



Urdin argia zein krema kolorea
oso aproposak dira lasaitasun
sentsazioa emateko



LAGOI S.L.

MOTA
GUZTIETAKO
ZERAMIKAK

Aholkularitza
personalizatua

Eraikuntzarako
materialak

SUOMI - Astolabeitia kalea, 9 - Abadiño - Tel.: 672 209 355

REPRISE

MILAN

BILTEGIA ETA ERAKUSKETA

etxedreams
COLCHONERIAS

30 urte pertsonen ongizatea lantzen

Atsedenez
egingo dugu berba?

DURANGO: Mikeldi 4 - Tel.: 946 202 138

Osagarrien
aukeraketa



Oheko arropak janzten du logela.
Beraz, bakoitzak bere estilo
propioaren arabera aukeratu dezala



APAINKETAK
ROYUELA
BERNIZADURAK-LEUNKETAK

Jokatu zure espazioekin modu
xume eta personalizatuan

Kalebarria, 40 Durango
Tel.: 946 810 582 · info@royuela.biz

Diseño y confort
con SISTEMAS KÖMMERLING



KÖMMERLING
Sistemas de ventanas

UMEEN LOGELAK

Jolasteko eta atsedenerako espazioak



Jaioberri eta gazteentzako geletan, atsedean hartzeaz gainera, jolastu eta ikasteko espazioak egokitu behar dira, guztiak baitira garrantzitsuak



Espazio falta dagoen kasuetan, literak erabiltzea aukera ona izaten da. Kasu askotan, beheko aldean ohea beharrean, ikasgela jarri daiteke



leike

aroztegia & diseinua

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com

Etvetresna elektrikoak barne. Argazkiko sukaldeak ez du bat egiten eskaintzarekin. SCHMIDT GROUPE SPAIN Y PORTUGAL, S.L. - Can CIF B86624665 - Credito foto Atelier MARC BARRAL BARON y Visión

Zure Schmidt sukaldea **6400€**-tik aurrera

Ekainaren 16ra arte

Eskura

zure poltsikoaren eskura

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

SCHMIDT
Sukaldeak eta etxeko altzariak



Gaitasunen Eguna

JAIALDIA DURANGO :: Maiatzak 26

Aniztasun funtzionalaren aldeko jaiak egingo dute Landako Gunean. Geu Be, Rio de Oro eta Angelman Sindromearen Elkarteak dira sustatzaileak, baina udalaren, elkarte askoren eta ikastetxeen babesa dute. Lasterketa 09:45ean hasiko

da, eta 10:30ean tailerrak eta areto futbolak. 13:00etan dantzen erakustaldia egingo dute, eta gero flashmoba. 14:30eko bazkariaren ostean, lehiaketak eta bertsoak aurreikusi dituzte. 18:00etan Luhartzegaz jarraituko du jaiak.

Maiatzaren 18an

MAÑARIA hitzaldia
Zuriñe Hidalgo
abeslariaren hitzaldia,
18:00etan, liburutegi zaharrean.

ZALDIBAR musika
OIZpe Sax 5tet taldearen kontzertua,
18:30ean, San Andres parrokiaren.

DURANGO musika
Maria Azurmendi eta Ines Parbole piano irakasleen kontzertua,
19:00etan, Kurutzasantuan.

DURANGO ipuin kontaketa
'El Tiempo de las Naranjas' ipuin kontaketa, **Cristina Verbenaren** eskutik,
19:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan.

ELORRIO musika
Silvia Palumboren kontzertua,
20:30ean, Arriolan.

DURANGO antzerkia
'Zubi Bi Su' antzezlanak,
22:00etan, San Agustin kulturgunean.

ABADIÑO San Trokaz jaiak
Baserriko porrusalda antzerkia,
17:00etan, Zeletabe kalean, **Tanque Gurugu** antzerkia, 18:30ean, plazan, **Eskuz binakako txapelketako finala**,
19:30etan, Tornosolon.

Maiatzaren 19an

IZURTZA aurkezpena
Munduko Loreak proiektuan garatutako horma irudiaren aurkezpena,
11:00etan, frontoian.

BERRIZ urteurren jaiak
Gure Izarrak elkartearen **24. urteurrena: poteoa**,
13:00etan, Olakueta plazan, **bazkaria**,
14:00etan, Pedro Juan jatetxean, **'Sin Rodeos'** pelikularen emanaldia,
18:00etan, Kultur Etxean.

ELORRIO kirola
Errugbi inklusiboaren eguna, **Gorabide, Bizkaia SD, Hernani, Getxo eta Bilboko** taldeekin,
egun osoan zehar, plazan eta errugbi-zelaietan.

ELORRIO erakusketa
Besaide dantza taldearen argazkiekin erakusketa,
egun osoan zehar, plazan.

DURANGO antzerkia
'Zubi Bi Su' antzezlanak,
20:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO musika
Cycle eta Skasti taldeen kontzertua,
22:30ean, Plateruenean.

ELORRIO musika
Sei Urte eta Cecilia Payne taldeen kontzertua,
22:30ean, Ateneon.

ABADIÑO San Trokaz jaiak
Paella erraldoia,
14:30ean, Olakueta, **erromeria Gozategigaz**,
18:00etan, Txanportan, **The Wilsons, Sumision City Blues, Joseba B.Lenoir eta Willis Drummond**,
21:30ean, Txanportan.

Maiatzaren 20an

ABADIÑO deialdia
'Alderdikide eta alderdi zaleentzako bazkaria',
Abadiñoako batzokian.

Maiatzaren 24an

ABADIÑO hitzaldia
'Guk Gure Pentsioak; 1080 euroko gutxieneko pentsioa' hitzaldia **Arantza Urkaregi eta Carlos Ruizekin, EH Bilduk** antolatuta,
18:30ean, Errota kultur etxean.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Rabbit School**
barikua 18: 18:15
domeka 20: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **Deadpool 2**
barikua 18: 19:30/22:00
zapateria 19: 17:00/19:30/22:30
domeka 20: 17:45/20:30
astelehena 21: 18:30/21:00
martitzena 22: 20:00
eguzartena 23: 20:00

• **Amor a Medianoche**
barikua 18: 19:30/22:00
zapateria 19: 17:00/19:30/22:30
domeka 20: 19:00/21:00
astelehena 21: 18:30/21:00
martitzena 22: 20:00
eguzartena 23: 20:00

• **Verdad o Reto**
barikua 18: 19:30/22:00
zapateria 19: 19:30/22:30
domeka 20: 19:00/21:00
astelehena 21: 18:30/21:00
martitzena 22: 20:00
eguzartena 23: 20:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **El Cairo Confidencial**
domeka 20: 20:00
astelehena 21: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **Amor a Media Noche**
zapateria 19: 22:00
domeka 20: 20:00
astelehena 21: 20:15



Sare Eguna ospatuko dute maiatzaren 26an, Iurretan

Maiatzaren 26an, Sare Eguna ospatuko dute Iurretan. Goizean zehar, hainbat ekintza egongo dira, tartean ekitaldi nagusia, 13:30ean, Dantzari plazan. 15:00etan, bertso bazkarian batuko dira, Askondoko Aterpean. Alaña Martinek, Txa-

ber Altubek eta Aitor Bizkarrak abestuko dute. Bertso bazkariara joan gura duenak Gauargi tabernan eros ditzake txartelak.

Bestalde, hilaren 24an, Iurretako motxiladun umeen esperientzia entzuteko aukera egongo da Ibarretxan, 19:00etan.

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi kultura@agenda.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.

Mariano Estudilloren Licenciado Vidrierak irabazi du Zornotzako V. Maketa Lehiaketa

1.500 euroko saria irabazi du talde durangarrak; finalean, Steepers eta Wicked Wizzard taldeekin batera egon zen

MUSIKA • A.M.

Zornotzako Gazteria Sailak antolatutako maketa lehiaketaren bosgarren edizioa irabazlea Licenciado Vidriera talde durangarra izan da. 1.500 euroko saria irabazi du. Finalean, The Steepers zornotzarrekin eta Wicked Wizards hirukote mungiarrazagaz lehiatu behar izan zuen taldeak. Talde bi horiek 500 euroko saria (euskarazko abestirik onenarena) eta Zornotzako jaietan kontzertua eskaintzeko aukera irabazi zuten, hurrenez hurren. Joan zen barikuan jokatu zen finala, Zorno-

tzako Zelaieta zentroan. Besteak beste, The Van berriztarrek eta Desore taldeak irabazi zuten sari nagusia aurreko edizioetan.

Bost kantuko laburra

Licenciado Vidriera Mariano Estudillo durangarraren proiektu musikal berria da. Hamazazpi urteaz Tabula Rasa sortu eta gero ekin dio ibilbide berri honi, akustikoan. Apirilean, bost kantuk osatzen duten *Licenciado Vidriera* disko laburra eskegi zuen sarean. Bertan, biolinak eta txeloak protagonismo handia dute.



Mariano Estudillo, Ane Ibarra eta Nerea Aizpurua, saria jaso ostean.

'Elektrik' lan berria aurkeztera dator Cycle Plateruenera, antzokia dantzan jartzeko asmoagaz

22:30ean hasiko da emanaldia; madrildarrekin batera, Skasti taldeak eskainiko du kontzertua zapatuan



Madrildik dator Cycle taldea.

MUSIKA • A.M.

Confussion!!! abesti mitikoaren egileak Durangoko Plateruenera egongo dira zapatuan. Hain zuzen ere, Cycle laukote (zuzenekoetarako bosgarren musikari baten laguntza dute) madrildarra *Elektrik* lan berria aurkeztera dator, eta abesti berriei zein klasikoei ikusleak dantzan jartzeko asmoa dakarte madrildarrek, gainera. Orain dela hamabost urte *Weak On the Rocks* kaleratu zutenetik beste hiru lan kaleratu dituzte madrildarrek. Hala ere, orain artean ez dute berdindu bere garaian lorturiko arrakasta. Disko berri honetarako, euren estilo

elektronikotik apur bat aldentu, eta rock doinuak nabarmendu gura izan dituzte. "Hau jauzi eginez dantzatzen da, besoak altxatuta eta ukabilekin zerua joz", diote taldekideek. Diskoan, gainera, Los Planetas eta Leon Benaventeko kideen kolaborazioak izan dituzte.

Madrildarrekin batera, Skasti taldea arituko da kulturaguneko oholtza gainean. Gipuzkoarrak YE izeneko lan berria aurkezten egongo dira. Laugarren diskoa du Skastik, eta ska doinuetatik aldentuta, funkia, rock alternatiboa eta india nagusitzen dira diskoaren hamahiru kantuetan.

ZORNOTZA
CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

DATAK

Aurrematrikula	Matrikula
ekainaren 4tik 15era	uztailaren 12tik 18ra

ESKAINITZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroiinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINITZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Langile/langabetuentzat ikastaroak

946 730 251 | info@fpzornotza.com | www.fpzornotza.com | @fpzornotza

AENOR, AENOR, Kudeaketaren Kalitateari 2005, IONET, Fp, ELUSKARI LANBIDE HEZIKETA, EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO, HEZKUNTZA SAIA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

'Zubi Bi Su' obragaz 2233. urtera egingo dute jauzi Kurutziaga ikastolako ikasleek

Jose Martin Urrutia 'Txotxe'-k idatzitako 'Zubi Gizakiak' antzezlanaren moldaketa aurkeztuko dute San Agustinen

ANTZERKIA • A.M.

Iparraldea izoztearen eraginez, argindarrrik barik gelditu dira Euskal Herrian. Hegoaldera, Afrikara emigratzea erabaki dute hainbat familiak, tartean, antzezlaneko protagonista den Arrazolako familia batek. Bidean, hainbat zubi igaro beharko dituzte protagonistek. 1998an Jose Martin Urrutiak idatzi zuen 'Zubi Gizakiak' obraren moldaketa da 'Zubi Bi Su' hau, izan ere, hasierako antzezlan hoguei lagunentzat ze-

goen prestaturik, eta oraingo honetan 40 ikaslek parte hartuko dute antzezlanean; 27 aktorek eta 13 dantzarik, hain zuzen ere.

San Agustin kulturgunean izango dira emanaldiak. Lehen, gaur, 22:00etan. Bigarrena, ostera, hurrengo egunean izango da, zapatuan, 20:00etan. Sarrerak ondo saltzen ari dira eta, beraz, ahalik eta arinen erosteko gomendioa egin dute antolatzaileek.



Kurutziagako ikasle eta irakasleak, entseguan. Kurutziaga ikastola.



TXINTXIRRI BIDEA ZABALTZEN
ELORRIOKO IKASTOLA

EKAINAK 2
LARUNBATA
EGUN OSOKO
JAIALDIA
ELORRIOKO PLAZAN

11:00 UMEENTZAKO
PUZGARRIAK ETA JOLASAK

13:00 UMEEN IKUSKIZUNAK ETA
URTEURRENEKO ABESTIA

14:30 HERRI BAZKARIA

(TXARTELAK SALGAI MAIATZAREN 30ERA ARTE
IKASTOLAN, PARRAN, TXIRRIIN ETA XARAN.
PREZIOA: UMEAK 8EURO/12URTETIK GORAKOAK 15 EURO)

17:30 TXOKOLATEA

18:00 ERROMERIA
EGUN OSOAN ZEHAR TXOSNA
UDALETXE ONDOAN.



'Abarkas' bertsolari iurretarra Getxoko saioan nagusitu da

Asteburuko saioetan, Durangaldeko bertsolari bi arituko dira: Sarriugarte Areatzan eta Barruetabeña Erandion



Eneko Abasolo 'Abarkas' bertsolari iurretarra Getxoko bertso saioan.

BERTSOLARITZA • M.Z./A.M.

Saio bi egon ziren Getxon joan den astean. Arratsaldekoan Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek 175 puntu lortu zituen, eta hamabi puntuko aldea atera zion Iñaki Iturriotz bigarren sailkatuari. Beñat Romero zornotzarrak ere abestu zuen bertan, eta seigarren postuan amaitu zuen. Goizeko saioan, berriz, Gorka Pagonabarraga durangarra bigarren postuan geratu zen. Asteburuko beste kanporaketa Elorrioko jokatu zen, maiatzaren 12an. Bertan, Ander Elortegik lortu zuen punturik gehien. Aitor

Ander Elortegik lortu zuen punturik gehien Elorrioko Arriolan jokaturiko kanporaketan

Esteban izan zen bigarren, eta Iker Uriarte hirugarren.

Asteburuan, Udabarri faseko beste kanporaketa bi egongo dira. Zapatuan, Areatzan, Garikoitz Sarriugarte zaldibartarrak abestuko du; eta domekan, Eneko Barruetabeña durangarra Erandioko saioan egongo da

"Japoniara egindako bidaiari 2.500 argazki inguru atera nituen, hogeita bost egunean"

'Wanderlust: Japan' liburua kaleratu du Leire Unzueta Balenziagak (Durango, 1987); bildumako lehen alea izatea gura du



Leire Unzueta, egindako bidaietako batean.

ARGAZKILARITZA • ARITZ MALDONADO
Hamar bat urteaz Gaztelugatxera eginiko bidaiari batean maitemindu zen argazkiak ateratzeaz Leire Unzueta. Harrezkero eginiko bidaiari guztiak dokumentatu ditu. 35 herrialde bisitatu ditu ordutik. Iaz Japoniara eginiko bidaiari argazkiekin 'Wanderlust: Japan' liburua kaleratu du Unzuetak.

Nola irten zen liburua kaleratzeko aukera?

Nire ustez, argazkiaren prozesua ez da klikagaz amaitzen. Atera ostean, editatu eta inprimatu egin behar da. Askok inprimatzen dut nik, akatsak ikusteko zein oparitzeko. Liburua Japoniara egindako bidaiari ateratako argazkiekin egin dut, baina izan zitekeen beste bidaiari batean ateratakoekin ere.

Nola aukeratu zenituen argazkiak?

25 bat egun igaro genituen Japonian, eta han eginiko ibilbidearen lekukotza dira argazkiak; 2.500 argazki inguru aterako nituen. Blogean, adibidez, gehiago luzatzen naiz azalpenetan, baina liburuagaz zerbait bisualagoa egin gura nuen. Liburua 90 argazki bako gehiagok osatzen dute.

“

Lagun batek esaten dit nire argazkiek ukitu malenkoniatsua dutela, baina niri ez zait horrela iruditzen”

■

Zelako argazkiek osatzen dute lana?

Lagun batek esaten dit nire argazkiek ukitu malenkoniatsua dutela, baina niri ez zait horrela iruditzen. Badute ukitu misteriosu bat, edo beste zerbait, behe-lainoagaz lotuta edo, ildo horri jarraitzen diote, baina ez dut uste tristeak direnik; kolore asko dute. Hori bai, egun triste edo ilunetan ateratzen ditut argazkiak, batez ere. Argazkiak editatzeko teknika ere garatu dut denbora honetan guztian.

Ikastaroak ere eskaintzen dituzu.

Irakaslea naiz ogibidez, eta argazkiak ere saltzen ditut, stock modura. Hitzaldiena zerbait berria da, baina badut asmoa serioago hartzeko, izan ere, idazten ari zaizkit. Erakusketak ere egin ditut, bi New Yorken, bat Indian, eta, azkena, Durangoan.

Gutxinaka banabil hemen ere zabaltzen.

'Wander.film' proiektua ere esku artean duzu.

Jon Etxezarragaz eta Aiora Poncegaz nabil proiektuan. Kreatibitatea lantzea da gure asmoa, korrontetik irten eta zerbait berezia sortzeko.

Nola nabarmendu zure argazkiak aro digital honetan?

Maiatz hasieran Urdaibain egindako topaketetan egon ginen 'Wander.Film'-ekook, eta horretaz hausnartu genuen bertan. Gauzak birplanteatu egin behar dira, guztiok berdina egitea baita joera garai honetan. Ariketa legez, galdera hau egitea ona litzatekeela uste dut: 'Inork ikusiko ez balitu, jarraituko zenuke argazkiak ateratzen?'. Nik argi dut baietz.

Geure Durangaldea

Martin Loizate Sarrionandia Ikaslea



Matematikari palestinarra

Autobusaren jesarleku errenkadak 11 x Autobusaren jesarleku zuta-beak 4 (2 zutabe korridorearen ezkerrean eta beste 2 korridorearen eskuinean) - 20 leku hutsik = 24 pertsona doaz autobusean.

Matematikari palestinarrek, autobusean doala, ariketa matematikoa egin du, gerrako balantzea bailitzan:

15.000 etxebizitza eraitsi dituzte azken 14 urteotan (15.000 / 14 = 1.071 etxebizitza urtean), eta 4.500 daude eraisteko aginduarekin. 15.000 + 4.500 = 19.500 etxebizitza.

Jaffa Road kalean igo da autobusera, Estatu Batuek enbaxada jarri duten lekutik gertu, eta azkenengo ilaran eserita dago. Ariketarekin jarraitu du:

20.000 palestinar kanporatu zituzten indarrez Jerusalemdik 2013ko gerran, eta guztira 5,4 milioi errefuxiatu daude. 5.400.000 - 20.000 = 5,3 milioi errefuxiatu palestinar zeuden 2013 aurretik, kalkuluak beherantz borobilduz.

Geltokiz geltoki betetzen doa autobusa. Militarrek identifikatzen ditu eserleketan, autobus hau hartu ohi dute goizeko ordu hauetan. Irratia piztuta dago eta Eurovisionerako kanta errepiatzen dabilta goiz osoan, Bullyingaren aurkako kanta omen dena. Kalkuluekin jarraitu du:

Gazako azken erasoan aurretik 1.002 ziren Israelek azken hamarkadan hildako haur palestinarrek, eta erasoan ostean 1.010, beraz 1.010 haur - 1.002 haur = 8 haur hil zituzten asteleheneko erasoetan.

Central-eko geltokian geratu da autobusa. Ezkerreko eskua poltsikoan sartu du, olibondo adar bat daukan poltsiko belean; bestea, bestean. Matematikari palestinarrek kalkuluekin jarraituko du, ekuazioak soluzio matematikorik ez duela jakin badakien arren.

Heriotza bikoitza
Ze Onda Antzerki Taldea
Maiatzak 25, barikua
20:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

PLATERUENA

CYCLE+SKASTI
Maiatzak 19 - 22:30ean
Kontzertua

YOGIPUINAK
YOGA ETA IPUINAK
Maiatzak 20 - 12:00etan
Irakurketa

MICHAEL RELOADED
Ekainak 1 - 20:00etan
Kontzertua

Munduko txirrindularirik onenekin, inoizko ibilbiderik gogorrena izango du aurtengo Emakumeen Birak

Bihar hasiko da, Legazpian; lurretan amaituko den azken etapan Urkiola mendatea igoko dute, Biraren historian lehenengoz



Iaz Emakumeen Bira irabazi zuen Asleigh Moolman-Pasio faboritoen artean dago aurten ere.

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO
Galako jantzi da 31. Emakumeen Bira. UCIren Women World Tour (WWT) izendapenagaz estreinaldia izango du eta txapeldunen ligan aritzeak eskatzen duen moduko ibilbidea diseinatu dute antolatzaileek eta babesleek elkarlanean. "Inoizko Emakumeen Birarik gogorrena izango da", azaldu du Agus Ruiz probako antolatzaileetako batek.

Azken urteetako joera apurtuz, lurretan amaituko da Bira, hasi beharrean. "Euskal Tebistak zu-

zenez emango du eta lurretak merezi du horrelako egun bat", Ruizen esanetan. Egun horretako ibilbidea Durangaldetik izango da gehienbat, eta Emakumeen Biraren historian Urkiola mendatea igoko dute lehenengoz, Mañariko aldetik. Urkiola gainera 50 kilometro faltako dira helmugarako. Legutiotik bueltan, toki beretik jaitsiko dira helmugarako 13 kilometroren faltan. Etapa 15:30ean hasiko da eta, aurreikuspenen arabera, 18:50 inguruan helduko dira helmugara.

Legazpian hasiko da Bira, bihar. Txirrindulariek hankak ondo berotzeko aukera izango dute, hirugarren mailako hiru mendate igota. Bigarren etapan Agurain eta Gasteiz lotuko dituen erlojupeko luzeari (26 km) egingo diote aurre, eta azken-aurreko etapan, Aretxabaletan, bigarren mailako mendate bi igoko dituzte, besteak beste.

Faboritoen zerrenda

Faboritoen artean, lau nabarmentzen dira besteen gainera. Asleigh

Moolman-Pasio (Hegoafrika, 1985) iazko irabazlea ez da espezialista erlojupekoetan, baina orduan galdutako denbora berreskuratzeko aukera asko izango ditu hurrengo egunetan. Anna van der Breggen (Herbehereak, 1990) WWTko kopako gaur egungo liderra eta Annemiek van Vleuten (Herbehereak, 1982) erlojupeko munduko txapeldun beteranoa kontuan hartu beharreko txirrindulariak dira. Elisa Longo Borghini (Italia, 1991) eskalatzailerik fina ere onenen borrokan ibili daiteke.

BIRAKO ETAPAK

- Legazpia-Legazpia
Noiz: maiatzak 19
Luzera: 108 km
Mendateak: Aztiria (3) eta Eizaga (3) birritan.
- Agurain-Gasteiz
Noiz: maiatzak 20
Luzera: 26,6 km.
- Aretxabaleta-Aretxabaleta
Noiz: maiatzak 21
Luzera: 114,5 km
Mendateak: Etxaguen (2), Untzilla (3) eta Arlaban (2)
- lurreta-lurreta
Noiz: maiatzak 21
Luzera: 120 km
Mendateak: Duña Gane (2) eta Urkiola (1)

Kolaborazio berezia

Ziortza Isasi
(Elorrio, 1995)
Sopela Team



Nire lehen WWT-a proba

Kadete mailan nengoetik, noiz edo noiz Emakumeen Bira lehiatzea gustatuko litzaidakeela esaten nion neure buruari. Beti eramaten ninduten ikustera edo sariren bat ematera. Munduko txirrindulari onenek parte hartzen zuten eta pentsatzen nuen inoiz gai izango ote nintzen ni maila horretara heltzeko.

Egun hori 2015ean heldu zen. 19 urteagaz nire lehen Biran parte hartu nuen. Berdin zitzaidan lasterketan zer egin; bertan egotea sari bat zen. Hurrengo urteetan UCI-k WWT-a sortu zuen, eta gure etxeko lasterketa, hain aspaldikoa den proba hori, maila horretatik kanporatu zuen. Antolatzaileak buru-belarri saiatu ziren sar zezaten eta, ekinaren ostean, aurten bertan sartzea lortu dute.

WWT-ko lasterketa batean parte hartuko dudan lehen aldia da. Maila izugarria dago eta, egia esanda, ez nuen buruan etxeko lasterketan parte hartzea, oso ibilbide menditsua eta gogorra prestatu dutelako. Beti izaten da menditsua, baina aurtengo edizioa orain arte antolatu dituztenen artean gogorrenerikoa dela iruditzen zait. Besteak beste, gure etxe ondoan dugun Urkiola igotzen delako. Azkenean, niri ere bertan sufritzea egokituko zait, baina ez diot nire buruari helburu zehatzik jarri, esperientziaz ahalik eta gehien gozatzea, besterik ez.

Asteko kirolaria



JUNE
ARBEO SARRIGUARTE

Iurreta, Atletismoa

"Euskadin ezarri berri dudan marka hori gehiago ontzea dut helburu nagusi"

10 minutu eta 39 segundoko denbora egin du Durangaldea Runningeko korrikalariak Oviedoko proban

Joan zen asteburuan Euskadiko marka berria ezarri zenuen 20 urtez azpikoetan, 3.000 metroko oztopodun lasterketan.

Oviedoko 3.000 metroko oztopoen lasterketara sasoi betean heldu nintzen eta ondo aritzea espero nuen. Gainera, nire helburuetako bat Euskadin ezarritako zegoen marka apurtzea zen. Hala ere, aitortu behar dut sorpresa izan dela marka hau egitea.

Orain 10 urte Ainhoa Sanz urretxuarak ezarri zuen marka bost segundotan hautsi duzu.

Bai. Nire ustez, marka oso ona ezarri dut, eta gustura nago egindakoagaz. Euskadin marka berria ezartzeaz gain, orain arteko nire denborarik onena asko jaitsi dut. Gainera, Espainiako zortzigarren denborarik onena egitea ere lortu dut. Hau, esaterako, planteatu ere ez nuen egiten.

Zein da sekretua hamar urtean beste batzuek lortu ez dutena lortzeko?

Gogor lan egiten nabil. Beste urte batzuetan baino entrenamendu saio hobeak egiten ari naiz eta gakoa hor dagoela esango nuke. Gainera, emaitza onak lortzen hasten zarenean, gehiago gura duzu eta hori lortzeko gogorrago lan egiten duzu. Nik, esaterako, Euskadin ezarri berri dudan marka hori gehiago ontzea dut helburu.

Azken urtean pauso garrantzitsu bat eman duzu, bai pistan eta baita krosetan ere.

Iaz atletismoa serioago hartzen hasi nintzen. Ordura arte, jolas baten modura hartu nuen. Baina, azken urte honetan, gogor lan egin dut, eta aurrerapauso handi bat eman dut.

Zein da zure hurrengo erronka?

Orain atsedean hartuko dut, eta ekainean izango dugun Espainiako Txapelketa izango da hurrengo lasterketarik garrantzitsuena.

Krosa eta pista uztartzen dituzu.

Bai. Pistan presio handiagoa dudana arren, helburu nagusienak ere bertan ditut. Orduan, krosa pistako denboraldia prestatzeko erabiltzen dut gehienbat.

Goi mailako kros denboraldia egin du aurten June Arbeo durangarrak. Pistako denboraldia ere ezin hobeto hasi du.

AUTO LASTERKETAK • JOSEBA DERTEANO

Auto lasterketen munduan pauso berri bat emango du Iñigo Olabegogeoaskoetxea (Atxondo, 1982) auto gidariak. Bere ibilbidean, lehenengoz, Europako Igoeren Txapelketako proba batean parte hartuko du asteburuan, Asturiasen, BMW M 46 autoaren bolantean. Turismoen E1 kategorian lehiatuko da.

Fitorako igoera Espainiako Txapelketako zirkuituaren barruko proba bat ere bada. Estatuan badu esperientzia, baina zazpi urte joan dira azkenekoz parte hartu zutenetik. 2011n igoeren txapelketa horretako proba bitan aritu zen.

Aurten estreinatuta duen autoa bere ibilbideko "onena" dela dio eta asteburuko probaren bidez txapelketa bietan non egon daitekeen neurtu gura du. "Probatu egin gura dut. Europako sailkapenean zer egin dezakegun aurreikustea ez da erraza, baina Espainiakoan bost onenen barruan sailkatzea dut helburu", adierazi du pilotu atxondarrak.

Euskal Herrikoan, lider

Euskal Herriko Igoeren Txapelketan lider dago zirkuituko proba bi lehiatu direnean. Autoagaz izan dituen sentsazioekin gustura dago momentuz. Opakuako lehenengo lasterketako txanda bat irabazi eta bestean bigarren amaitu zuen.

Olabegogeoaskoetxeak Europako Txapelketako proba batean parte hartuko du lehenengoz

Asteburuan izango da, Asturiasen; Espainiako Igoeren Txapelketarako puntuagarria ere bada lasterketa hori



BMW M3 46 auto berriarekin ari da lehiatzen aurtengo denboraldian.

Joan zen asteburuan, Gorlan, lau garren eta bigarren amaitu zuen txanda bakoitzean. Gorlako bigarren txanda irabazteko zorian izan zen. 20 segundo-milaren baino ez ziren egon aurreneko sailkatu

bien artean. Edozelan ere, lau txandetako puntuak batuta lider dago sailkapenean. Euskal Herriko Txapelketako hurrengo hitzorduak ekainaren 2an eta 3an izango ditu, Gipuzkoako Aia herrian.



Jokalariak ligako garaikurrak.

Kulturalak etxean hasiko du igoera fasea Conquense-ren aurka, zapatuan

FUTBOLA • J.D.

Durangoko Kulturalak Conquense (Cuenca, Gaztela-Mantxa) taldearen kontra jokatuko du igoera faseko kanporaketa erabakigarria. Joanekeo partidu Durangoko Tabira futbolzelaian jokatuko dute bihar, 18:30ean, eta itzulikoa hurrengo asteburuan izango da, Cuenca. Kanporaketa honetatik garaile irteten den taldea Bigarren B Mailara igoko da. Galtzaileari beste aukera bat geratuko zaio oraindik.

Kulturalak joan zen asteburuan amaitu zuen liga, Santutxuren aurka bina berdinduta. Amaieran ligako txapeldunen garaikurra jaso zuen.

Adituaren txokoa

Unai Zamalloa
Zubiaurre
Saskibaloia



Azkeneko pausoa

FEB (Federación Española de Baloncesto), entzun! Ametx Zornotzari astebete falta zaio bere etxera bueltatzeko, eta, beraz, kendutako giltzak eman, eta itxitako ateak zabalik utzi, aurten handiagoo dator eta.

Bai, gero eta gutxiago falta da. Menorcan izango da igoera fasea, asteburu honetan (maiatzak 18 eta 19), eta denok egongo gara beraiekin. 3 partidu. 3 final. Aurkari zailak eta gogorrrak, eta denak aritu dira gogor ligan. Lehenengo partidu, ostiralean, Cazorlan kontra. Quarry Greenaway hegalekoa da euren jokalaria arriskutsuena.

Bigarrena, larunbatean, Servigroup Benidormen aurka. Talde horretakoa da Unai Bereziartua, Tabirakon eta Santurtzin ibilitako jokalaria. Talde horrek William Mc Donald du jokalaria garrantzitsuena.

Eta, azkenik, igandean, hirugarren eta azken partiduan, bertako taldearen aurka arituko da: Menorcaren kontra. Talderik konpletuena eta gogorrena da eta, gainera, bere etxean jokatzen du. Kontuan hartzeko jokalaria hauek ditu: Andreu Matali, esperientzia eta maila handiko hegaleko pibota eta Jan Orfila menorcarra. Azken jokalaria hau ere, esperientzia eta maila handiko pibota da.

Partida zailak eta gogorrrak izango dira den-denak. Baina Ametx Zornotza prestatuta dago horrelako erronkei aurre egiteko. Ez dute baloi bat galdutzat emango, seguru, eta partidu guztian zehar egongo dira lanean eta borrokan garai-penaren bila.

Badator urte osoan borrokatu duten unea. Ate-joka dugu momentu erabakigarria eta zorterik onena opa diogu gure eskualdeko taldeari. Aurrera, Zornotza!

"Amestutako une bat izan da; baita liberazio moduko bat ere"

Eskalatzaile finen moduan, azken mendatean eraso jo eta profesioletako lehen garaipena lortu du Bizkarrak

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Mikel Bizkarra mañariarrak profesioletako lehenengo garaipena lortu zuen joan zen asteburuan Aragoiko Itzuliko azken etapan. Poza eta lasaitasuna, sentsazio biak uztartu zitzaizkion garaipenean. "Amestutako momentu bat izan da eta oso pozik nago. Liberazio moduko bat ere izan da. Irabazten badakigula erakutsi dugu", adierazi du Euskadi Murias taldeko txirrindulariak.

Lehen Mailako Cerler mendate gainean amaitutako etapan eraso bi jo zituen. Lehenengoan harpatu egin zuten, baina helmugatik kilometro eta erdira jotako bigarrenetan, ez. Etapa garaipena ez ezik, mendiko sailkapena ere berarentzat izan zen.

Orain, atseden hartuko du. Ekainaren 14tik 17ra Frantziako Pirinioetan izango den Rouet du Sud itzulia izango du denboraldiko hurrengo hitzordua.



Mikel Bizkarra taldekideekin. Photo Gomez Sport

R.P.S. 214/06
A. Urreta podólogo

POINETA PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
POINETA BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behe - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

//AUKERA

AUKERA. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Berogailua. **80.000€**

IZURTZA. 2 logela. Bainugela. Egongela. Bizitzera sartzeko moduan. **75.000€**

DURANGO. Erdi berria. Erdialdean. Apartamentua. Eguzkitsua. **143.000€**

ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Bainugela. Egongela. 2 Terraza. Igogailua. **129.000€**

//ETXEBIZITZAK SALGAI

ANTSO EZTEGIZ. 90m2. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. **165.000€.**

ASK. ETORBIDEA. 65m2. Erdi berria. Sukaldea. Esekitekia. Egongela. Ganbara eta garajea. **175.000€**

SAN IGNACIO. 85m2. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea esekitokiarekin. Egongela terrazarekin. Trastelekua eta garajea. IGERILEKUA.

MONTEVIDEO. Etxebizitza altua. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Ganbara. **155.000€**

IURRETA. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela terrazarekin. **130.000€**

ABASOLO. 107m2. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela eta 2 terraza. Ganbara eta garajea itxita. **279.000€.**

J.A. AGIRRE: Azken pisua. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela terrazarekin. 2 ganbara. Garajea.

LANDAKO (TXIBITENA). 100m2. 4 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela zabala. Ganbara. Garajea. Dena kanpora begira. **209.000€**

ABADIÑO. 2 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela. Trastelekua eta garajea. Hegoaldea. **152.000€**

ANBOTO. 3 logela. Bainugela. Sukalde zabala. Egongela balkoiarekin. DENA BERRIA. **178.000€**

F. J. Zumarraga: 130m2. Berria bezala. 4 logela (orain 3 logela.), 2 bainugela. Sukaldea eta egongela zabala. Terraza. Ganbara. Trastelekua eta garajea itxita 2 autorentzako (aukeran). **285.000€**

ARKOTXA: 110 m2. 4 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. **185.000€**

LANDAKO ETORBIDEA. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ganbara. Trastelekua eta garajea. **226.000€**

//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

INBERTSIORAKO LOKALA. 50m2. GUZTIA JARRITA. **85.000€.**

DURANGO. TABERNA martxan. 95 m2. **162.50€**

C/ERMODO. ALOKAIUA. **600€**

ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOA.

F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114 m2. SALMENTA **150.000€**

IBAIZABAL. 50 m2. Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIUA. **500€.**

//ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 600€-tik hasita.

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO. San Fausto. Logela biko pisua, sukaldea, bainugela eta logela. Merkea

BERRIZ. Etxebizitza guztiz berritua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, bainugela, eta garajea itxita.

DURANGO. ARTEKALE. Azken duplex-ak, logela bikoak, bi bainugelarekin. Prezioak 179.000€-tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, bainugela, esekitekia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berritua. Horrez gain, trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarr bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ELORRIO. Aldape auzoa. Baserría berrizatzeko, 3 hektareako lursaila. Prezioa 160.000€

ATXONDO. Baserrí ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserrí bifamiliarra berrizatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze.

BERRIZ. Baserrí ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserrí ondoan

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO. 40 m2-tik gorako bulegoak, 350€-tik hasita. Alde zaharrea, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu

www.inmoduranguesado.com



DURANGO 2 logela
60 m²
ANTSO ESTEGIZ. Egongela, sukaldea jarrita, 2 logela, bainugela eta balkoia. Igogailua eta ganbara. **190.000€**



DURANGO 2 logela
68,88 m²
ASKATASUN ETORBIDEA: 68.88m2. 2 logela (lehen 3), egongela, sukalde-jangela, bainugela eta balkoia. Berogailua eta igogailua **185.000€ /Neg**



DURANGO 3 logela
1 komun
F. JUAN DE ZUMARRAGA: Eguzkitsua. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela duxarekin, 2 balkoi, gas natural berogailua, igogailua eta ganbara **190.000€**



IURRETA 3 logela
1 komun
IURRETA: 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. Berogailua, igogailua. Hornituta. **105.000€**



IURRETA 3 logela
68,80 m²
IURRETA: 68,80m2. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta balkoia. Egizkitsua eta argi asko dauka. **129.000€**



MATIENA 2 logela
51,91 m²
MATIENA: 51,91m2. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta ganbara 11,87m2 koa **98.000€**



DURANGO 3 logela
82 m²
Komentu kalea 82m2 erabilgarri, 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta ganbara. **230.000€** +BEZatik aurrera. **230.000€**

//DURANGO
BARRENKALEA 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela 126.300 € / E.E.Z= G

ERRETENTXU 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia 210.000 € / E.E.Z=E

ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta balkoia 205.000 € / E.E.Z=E

EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 bainugela 321.500 € / E.E.Z=F

JUAN DE OLAZARAN 3 logela, sukaldea, 2 bainugela, egongela, 94m2 ko terraza eta garajea. Lehen 376.000 € Orain 369.000€/ E.E.Z=B

KOMENTUKALE Logela 1, sukalde-egongela, bainugela eta ganbara. 175.000Euro/E.E.Z=F

LANDAKO ETORBIDEA 2 logela, sukalde-jangela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi eta garajea. LEHEN 267.800 € ORAIN 255.000€/ E.E.Z=E

MIKELDI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, komuna, garajea eta ganbara Lehen 270.000€ Orain 260.000 € / E.E.Z= E

MURUETA-TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, garajea eta trastelekua 290.000 € / E.E.Z=E

PLATERUEN PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela, trastelekua eta garajea. Lehen 275.000 € / Orain 260.000 € / E.E.Z=E

SANTASUSANOSTE KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoi itxia, igogailua, ganbara eta garajea 240.000 € / E.E.Z=E

SASIKOA 4 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, garajea eta ganbara 220.000 € / E.E.Z=G

ZEHARKALE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, igogailua. 150.000 € / E.E.Z Bidean

ZUMALAKARREGI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela eta garajea. 695.000 € / E.E.Z= E

//ABADIÑO

ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, garajea eta trastelekua. 170.000 € / E.E.Z Bidean

ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, garajea eta trastelekua. 175.000 € / E.E.Z=E

FERIALEKU 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta garajea. Lehen 190.000 € / Orain 175.000 € E.E.Z=G

ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela eta garajea. 309.000 € / E.E.Z= F

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia 120.000 € / E.E.Z= F

ELIZONDO AUZOA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera 142.000 € / E.E.Z= G

//ELORRIO

ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela 199.000 € / E.E.Z= E Garaje itxia aukeran.

LABAKUA KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi eta despentsa 198.000 € / E.E.Z= F

//OTXANDIO

GOMILAZ AUZOA Baserría: Jatetxe eta etxebizitza 5 hektareako lurzoruagaz 1.200.000 € / E.E.Z= G

//BERRIAK

ELORRIO San Pío: Logela 1, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta igogailua 179.900€/ E.E.Z =G.

BERRIZ Andikona auzoa: Berreraikitze baserría, 460.000€

OTXANDIO Gonbilaz auzoa: Baserría, 350.000€



Botikak

BARIKUA, 18 - 09:00-09:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 19 - 09:00-09:00
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-13:30
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
BALENCIAGA Ezkurd plaza 8 - DURANGO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-14:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA
DOMEKA, 20 - 09:00-09:00
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA
ASTELEHENA, 21 - 09:00-09:00
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MARTITZENA, 22 - 09:00-09:00
CAMPILLO MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO
MELEROTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
EGUAZTENA, 23 - 09:00-09:00
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA
EGUENA, 24 - 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrngoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENKO 14:00AK ARTEKO EPEA



Izeik 3 urte egin eta ospatu ebazan asteburu eta astelehen tartean. On-do pasau pastel, kandela, erregalu eta lagun artien... Etxeko txikitxue-na be badoa handitzen-handitzen. Mosu potolo bat Joanesen, etxe-koen eta lagunuen partez.



Zorijonak, **Jon!** Eguaztenien 9 urte bete ebazan mutil honi mosu handi bat bieltzen deusau berataz harro gauzen danok.



GOZATU OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Manex (720. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Izarrek maiatzaren 9an 5 urte egin zituen. Gaur familia giroan ospatuko dugu. Zorionak etxeko guztien partez!



Araitx Arrizabalaga Zuazok 9 urte beteko dauz gaur. Zorionak etxeko guztien partez, printzesa.



Maiatzaren 16an gure poxpolinek zazpi urte bete zituen. Zorionak, **Maia!** Askok asko maitte zaittugu.

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 21° / 9°

ASTELEHENA 🌧️ 23° / 10°

EGUAZTENA 🌧️ 15° / 11°

DOMEKA 🌞 22 / 9°

MARTITZENA 🌧️ 20° / 11°

EGUENA 🌧️ 18° / 12°

ABADIÑO
ERROTA KULTU ETXEA (MATIENA)
MAIATZAK 26
17:30

Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia
Arkaitz Zipitria Mendizabal
Asier Urkiza Sanchez
Eneko Arrate Sololuze
Gurutz Uruburu Ibarguengoitia
Ibon Larrazabal Landa 'Larra'

bbt18
Bizkaiko Bertsulari Txapelketa 2018








"Euskal Western txapelketan parte hartzeko entrenatzen hasi gara Hooky eta biok"

ETB2 kateko 'El conquistador del fin del mundo' saioan aritutakoa da Aitor Armada zornotzarra. Artisautzan dihardu orain, eta Hooky zaldia du abentura lagun

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Egunaren erdia egur artean pasatzen du animaliak eta natura maite dituen gazte zornotzar honek. 'El conquistador del fin del mundo' ETBko saioan ezagutu genuen. Orain, Sospalak izeneko abentura berri batean murgildu da. Egurrezko artisau lanak egiten ditu.

Artisautza ogibide bihurtzeko abentura hasi zenuen orain hiru urte. Nolatan?

Zazpi bat urte gaz, artisau bat ohol handi batez lanean ikusi nuen Basauriko artisautza azokan. Ordu-bete egin nuen hari begira. Adanen eta Evaren irudi bat lantzen ari zen. Harek markatu egin ninduen; beti gustatu zait ofizioa. Zaletasuna ogibide bihurtu dut, eta hor nabil, apurka-apurka aurrera egin guran.

Oraindik etxean duzu gordeta erabiltako lehenengo trintxa, zurgintzan erabiltzen den erreminta?

Bai, zortzi bat urte gaz eskatu nuen. Etxean ez da egon inor egurra landu duenik artisau moduan, baina baserrian beti egon dira erremintak: zerra, aizkora, mailua, iltzeak... eta oholak hartzen genituen zerrategitik beti, hau edo bestea egiteko. Beti erakarri nau egurrak. Saguak harrapatzeko tranpa bat izan zen egindako lehenengo pieza, zortzi bat urte gaz. Umetan jostailuak apurtu egiten nituen. Hondetazailak eta halako erremintak hartu, eta pieza berriak egiten nituen egurra erabilia.

Egurra zeuk hartzen duzu.

Prozesua luzeagoa da, baina, ahal dudana neurrian, neuk hartzen dut egurra basoan; lagunek baserrian dituzten egur edo ohol zaharrak ere erabiltzen ditut. Bertako arbolak, hemengo artisautzan ezagunak direnak erabiltzen ditut: haritza,

gaztaina, intxaurra, zumarra... Gerizondoa ere bai, baina ez da erraza lortzea. Fruta-arbola da, oso preziatua, baina beti dago pieza txiki bat, jausitako gereziendo batena.

Lantzeko, zein duzu gogokoena?

Piezak berak eskatzen du zer erabili, baina gaztaina gustatzen zait. Gozoa da lantzeko, beta polita du eta hemen esanguratsua izan da. Baserrietako altzaririk gehienak gaztainazkoak dira. Haritza haga edo habeetarako erabili da gehiago. Intxaurra ere oso polita da, lantzeko oso gozoa, baina topatzeko zaila.

Artisautza zure bizitza dela diozu.

Ez dut esango obsesio bihurtu zenik, baina ikasle nintzela ere, motxilan erremintak eramaten nituen, eta matematika edo gaztelania eskoletan ateratzen nituen. Irakasleek paso egiten zuten. Arotzeria modulu bat egin nuen, baina, taillan autodidakta izan naiz; apurka-apurka ikasi dut, gero eta tresna hobeak erabilia. Baina asko dut ikasteko oraindik.

Sei urte dira 'El conquistador del fin del mundo' saioan parte hartu zenuela.

Nola gogoratzen duzu?

Ez dut telebista ikusten. Saioa inoiz ikusi barik nuen. Baina, batek esan zidan: "Ez dago potrorik Argentina-ra joateko!". Nire erantzuna, berriz, "Ez, ba!". Ez naiz damutzen. Esperientzia positiboa izan zen. Onena, egindako lagunak.

Reality horretako esperientzia errepi-katuko zenuke?

Kamerarik barik eta izan nuen taldeagaz, igual bai. Aurretik ere ezaguna nintzen, baina hasieran ilusioz hartutako ospea

eraman nuen txarren. Ia irten ere ez nintzen egiten; apur bat gogaituta amaitu nuen.

Hooky lagun leiala duzu.

Basora edo herrira, ahal dudana guztietan ematen dut bueltatxo beragaz. Izerdia bota ostean tratogtxo bat ondo sartzen da, eta kanpoan lotu eta itxaron egiten nau.

Begi-bistakoa da Western zalea zarela.

Zerk erakartzen zaitu?

Euskal Western elkarteak antolatutako txapelketak umetatik bizi izan ditut, osabagaz, eta, aurten, parte hartzeko esperantza daukat. Entrenatzen hasi gara Hooky eta biok. Country musika ere oso gustuko dut, eta aitita-amamekin ETB2ko western pelikula guztiak ikusitakoa naiz. Clint Eastwood aktorearen filmak gustatzen zaizkit: *Infierno de cobardes* oso ona da;

baita *Jinete pálido* eta *Fuera de la ley* ere.

Alboka ere jotzen duzu...

Txikitatik markatu nauen beste zaletasun bat. Eskolan, Euskal Astearen barruan, euskal instrumentuen erakustaldi batean liluratuta geratu nintzen. Baserrira etorri eta alboka egiten saiatu nintzen, baina... hor dago proiektua. Bat erosi eta jotzen ikasi nuen.



Aitor Armada Uribarri
Artisaua
Zornotza | 1994

Lauhortza

Amaia Ugalde Begoña
Kazetaria



Iraultza txikiak

Argentinatik etorri eta duela lau urte fruta-denda zabaldu zuten Durangon. Gutxi dakite euskaltegian bi urte egin zituela, eta bezeroek haren hizkera entzutean ez dute imajinatzen "sei platan", "hiru tomate" edo "melokotoiak gozoak daude?" ulertuko duenik. Baina bai, ulertuko dizu; eta ziurrenik, zure ahalegina eskertuko du. Euskaltegian ikasitakoa ez ahazteko eta apurka-apurka berak ere euskaraz berba egiteko horixe behar du; entzutea.

65 urte dauzka eta Elorrioren bizi da. Umetan aitita-amamen ahotik ikasi zuen euskara -erdaraz ia ez zekiten haiek!- baina gurasoek, Frankismoko urte ilunenetan, albo baten utzi zuten euren ama-hizkuntza. Lagunekin ere gaztelaniaz egin izan du beti. Laster amama izango da, eta bere ustetan nahiko baldar moldatzen bada ere, euskaraz egin gurako lioke bilobari. Koadrilan bota du erronka; gaurko errondan euskaraz egingo du berba. Ulertu, guztiak ulertzen dute. Euskaraz egitera animatzen badira, ederto; bestela, erantzun dezatela erdaraz.

Aurten hasi da unibertsitatean, eta Euskal Herri osoko jendea ezagutu du Leioan. Barakaldoko lagun mina egin du, eta harritura dago hark euskaraz egiteko duen joerarekin: Durangaldea baino inguru erdaldu-nagoan bizi bada ere, euskaraz bizitzeko aukera kontzientea egin du barakaldar.

Horixe da kontua: entzuteko prest, berba egiteko gogoz eta ariketa kontzientea egiteko motibatuta egotea. Joan daitezela pikutara aurreiritziak eta hankasartzeko beldurra.

Filosofia hori zabalduko da laster gurean; horixe dakar Euskaraldiak. Bilatu interneten, indartsu dator.

Bodegas *Launa*
Arabar Errioxa

info@bodegaslauna.com / Tel.: 946 824 108
www.bodegaslauna.com

2017
PEÑIN GIDA
93 puntu

Gidako Errioxako
kriantzarik onena

